

Ruben Dario

Fantasiatzko ipuinak

euskaratzailea: Lukas Dorronsoro

Fitxategi hau "liburu-e" bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Lukas Dorronsoro.

Euskarazko edizioa: Baroja, 1987

Jatorrizkoaren data: 1902-1909

Ruben Dario euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=493>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1288>

Gabon ipuina

Andra Mari-ko Frai Longinos komentuko harri bitxia zen. Harri bitxitzat hartzea gutxi da kasu honetan. Kutxatila bat zen, konpara ezinekoa eta aurkigaitz ohi den zerbait. Berdin arituko zitzaizun Frai Benito jakintsuari kopiagintzan laguntzen, eskuizkribuak maiuskulaz dotoretzen iaioa zelarik, edo sukaldean, baraualdien ondoren zilegi zitezkeen frijikariei usain gozoak aterazten; eta berdin sakristautzan edo barazkiak lantzen; matutietan edo bezperetan, berriz, armunioski betetzen zituen haren soxantre-ahots ederrak eliz-sabaiak. Meriturik handiena, ordea, haren musika-duintasun harrigarrian zetzan; haren eskuetan, haren organista-esku bikainetan. Komunitate osoan ez zen besterik inor tresna izentsu haren berri hark bezain ongi zekienik; hegazti talde melodiatsuaren pareko notak jaulkiarazten baitzizkion. Ez zen besterik inor hark bezala, espiritu zerutiarrez jantzia baitzegoen, prosak nahiz ereserkiak, eta abesti arruntaren ahots sagaratuak laguntzen zituenik.

Kardinal jaunak —behin, egun gogoangarri batez, komentua bisitatzera etorri zelatik—, Fraile honi bedeinkazioa eman omen zion lehenbizi, ondoren besarkatu eta, azkenik, jotzen entzuzionean, latinezko esaldia aukeratuz goraiatu egin omen zuen. Frai Longinosengan nabarmentzen zen guztia xalotasunik maitagarrienez eta alaitasunik tolesgabeenez argitua zegoen. Zerbaitetan ari zen bakoitzean bazerabilen ereserki-
ren bat ezpainetan, bere senide Jainkoaren txori-
ñoek bezalaxe. Eta, alporjak limosnaz beteak zekartzala, astokiloari orpo-kolpeka, eguzkipean izerdi patsetan komenturantz zetorrenetan, halakoxe gazte islada gozoa ageri ohi baitzitzaien aurpegian, baserritarrak etxe atarietan agertzen zitzaizkion agurka eta eurengana joateko hoska: E! Zatoz hona, Frai Longinos, basokada on bat hartzera. Abadetegian gordea dagoen taulan ikus zenezakete haren aurpegia: bekokipe jatorrean bi begi apal eta ilunak; sudur jasantxa, haur bihurrien itxura xumea erakusten; eta aho erdirikia, irribarrerik onberatienean iturri.

Hala, ba, behin, Eguberriz, auzo herrira joan zen Longinos...; baina, ez al dizuet komentuz

ezer esan? Nekazari herrixka batetik hurbil zegoen hau; txaradi mardul batetik ez oso urruti. Han monastegia eraiki zuten baino lehen, aztien afalde egiak, maitagarrien eta silfo-sorginen batzarrek eta, Leizekoak (Jainkoak guarda gaitzala) bere ardurapean dauzkan beste hainbat eta hainbat gauza antolatzen zituzten. Fraile-etxe santu hartatik misteriozko oihartzunak, hotsezko dardarizo handiak zeramatzaten zeruetako hai-zeek gauaren baketan, inular barea zenean...; Longinosen organoa zen, Kristorengan senide zitzaizkionen ahotsa lagun, arrenkari dohatsuak bidaltzen. Esan bezala, Eguberri egun batez, Fraile zintzoa auzo herrian zebilen, eta, halako batean, bekokian eskua ezarriz, harri eta izu, abere patxaroso filosofaria astinduz, hala ziotsan berekiko:

—Bai zoritxarrekoa ni! Ongi mereziak nituzke, bai, hiru halako zilizio eta bizi guztirako urugi hutsezko mantenua! Nola ote dagozkit zain monastegian!

Gaua aurrera zihoan, eta fraileak, Aitaren eginik, komenturako bideari heldu zion. Ilunpearen menpe geratu zen ludia. Ez zen ikusten

herrixkaren arrastorik; mendiak, berriz, gauaren beltzez jantzi baitzen, gizandi eta deabruen bizileku zitekeen gaztelutzar ikaragarria zirudien.

Hauek honela, bazihoan Longinos, joan eta joan, «Pater eta ave»ka etengabe, eta, hara non ohartzen den, harriturik, astakiloak zeraman bidexka ez zela betikoa. Ahalguztidunari erruki eske malko-begiak zerurantz jaso zituenean, zeru-sabai ilunean izar eder bat begiztatu zuen. Berarekin batera aurrera zebilen urre kolorezko izar eder bat, lurrerantz argi zorroztada samurra zeriola, bidegidari eta zuzi. Eskerrak eman zizkion Jaunari harrigarritasun harengatik, eta luza-ro baino lehen, beste behin hartako Balaan iragarlearenak bezala, ez zion astoak aurrera egin nahi, eta, hala esan zion hark, giza-hilkor garenon ahots argiz: Zorionekoa zu, Frai Longinos; izan ere, zeure bertuteengatik sari biziki handia jasotzeko seinalatua baitzaude. Hori entzun orduko, zarata bat nabaritu zuen eta usain guttiz eztia usmatu. Hiru Jaun ikusi zituen, handiki jantziak, berak zeraman bidean aurrera etortzen eta harriturik begiztatu zuen izarra gidari zetorkiela. Hiruek nabarmen zuten errege itxura, iku-

urrez ere adierazten zutenez. Aurrelaria Azrael aingerua bezain ile-argi bat zen; adats luzea sorbalda gainetan hedatzen zitzaion, barri bitxiz izarreztaturiko urrezko mitraren azpian; bizarra, perlaz eta urrezko hariz eihoa, dizdizari ageri zitzaion bular gainean. Mantuz estalia zihoan aberaski bordatutako pasai-hegaztiak eta zodiakoaren ikurrak zeramatzan mantuz. Gaspar Erregea zen, zaldi eder zurian zaldun. Bestea, ile beltzun bat; begiak ere beltzak eta biziki distiratsuak zituena; aurpegia, berriz, asiriarren erliebe laburreko koadroetan ikus daitezkeenen antzekoa; bazeraman diadema bikaina bekokia inguratzen. Kalkula daitekeen baino soineko garestiagoz jantzia; zahar samarra zen, eta begiratu hutsez antz ematen zitzaion Asiako erdialdean dagozkeen misteriozko herrialde aberatsen bateko errege izan zitekeela. Baltasar erregea zen eta azti-bitxizko koilarra zeraman diamantesuzko eguzki baten euskarri. Ekialdeko erara, dotore apainduriko ganbelu baten gainean zetorren. Hirugarrena beltza zen aurpegiz, eta maiestate-aire berezia zuen begiratuan. Bere burubira-zapiko errubi eta esmeraldak distiraz

isladatzen zitzaizkion. Ipuinetako erregegairik harroenaren antzo, elefante gainean zetorren, marfilez eta urrez landutako aulkian. Meltxor Erregea zen. Pasa ziren maiestate haiek, eta, Meltxor Erregearen elefanteari jarraiki, baita Frai Longinosen astemea ere ohi ez bezalako trotean, gainean Frailea, arrosario luze baten aleak behaztatuz, atsegin mistikoz asea zeramala.

Eta zera gertatu zen: —Herodes ankerraren egunetan bezala—, hiru anti koroatuak, jainkoaren izarra gidari zitzaiela, aberetegi batetaraino heldu ziren; eta han, margolariek pintatu ohi duten bezala, Andra Mari Erregina zegoen, Jose jaun santuarekin eta jainko jaioberriarekin. Alban, berriz, astoa eta idia, euren arnasa sendoaren beroaz gau-haize hotza epeltzen. Baltasarrek, ahuspezturik, zakukada bat perla, harribitxi eta urrehauts zabaldu zion haurrari; Gasparrek igortzukurik harrigarrienak eskaini zizkion urrezko pitxarretan; Meltxorrek intzentsua, marfilak eta diamanteak...

Orduan Longinosek, Frai Longinos zintzoak, honela hitz egin zion, bihotz-bihotzez, haur irribarretsuari:

— Jauna, morroi gizarajo bat besterik ez naiz ni, neure komentuan zuri zerbitzen ahalegintzen banaiz ere; zer eskain diezazuket nik gizagaixo honek? Nondik aterako ditut aberastasunak, usain gozoak, perlak eta diamanteak? Har itza-zu, Jauna, nire malkoak eta otoitzak, ez baitizut besterik eskaintzeko.

Eta, hara non ikusten dituzten Ekialdeko Erregeek Longinosen ezpainetatik jaiotzen euren otoitzen arrosak; eta haien usaina ukuzkari eta erretxin guztiena baino bikainagoa zen; haren begietatik ibaika sortzen ari ziren malkoak, berriz, diamanterik zoragarrienak bihurtzen ziren, maitasunaren eta fedearen aztindar goitarrak eraginik. Binbitartean, artzain koru baten oihartzuna entzuten zen lurrean eta aingeru talde baten melodia abeltegiaren teilatu gainean.

Komentuan, berriz, atsekaberik latzena bizi zuten ordu horretan. Elizkizunerako ordua heldua zen. Otoiztegia kandela-gartxoaz argitua. Abadea han zegoen bere goialkian, zeremoniakapaz jantzia, atsekabetua. Fraileak, komunitate osoa, harridura tristez elkarri galdebegiraka ari

ziren. Ze istripu izan otedu anaia zintzoak? Zergatik ez ote da herrixkatik itzuli? Elizkizunaren orduak jo du eta bakoitza bere tokian dago, monastegiaren aintzagarri den organu jotzaile xume goitiarra izan ezik... Nor ausar daiteke haren tokia betetzen? Inor ez. Inork ez daki teklategiaren ezkutukien berri; inork ez du Longinosen armonia-dohairik. Baina Priorrak elizkizuna musikarik gabe hasteko agindu duenez gero, denek ekin diote kantuari, Jainkoari, tristura nahasi batean, zuzentzen zaizkiola... Bat-batean, ereserkikoan, organoak jo behar zue-nean... jo zuen bai, sekulan ez bezala jo ere. Hare bajuak trumoi sagaratuak ziren; haren tronpetak ahots goitiarrak, haren tubo guztiak uler-tezinalako bizi zerutiarrez bizkortuak zeuden. Kantatu egin zuten fraileek, mirarizko suaz beterik kantatu ere; eta, Gabon gau hartan haizeak zeramatzan organo aire ezezagunak entzun egin zituzten nekazariek; bazirudien, izan ere, aingeru-eskuak, Zezilia aintzagarriaren esku single orbangabeak edo... ari zirela organoa jotzen...

Andra Mariko Frai Longinosek handik laster utzi zuen bere arima Jainkoaren eskuetan; santu

usainetan hil zen. Ustelgaitz dirau oraingoz haren gorputzak, komentuko elizkorupean marmolez landuriko hilobi berezi batean ehortzia.

Thanathopia

Gure aita John Leen doktore ospetsua zen; Londresko Psike Ikerlarien Errege Elkarte kide, eta, zientzilarien munduan oso ezaguna; hipnosiari buruzko bere ikasketengatik eta Old-ari buruzko bere memoria ospetsuarengatik. Duela gutxi hil da. Goian bego.

(James Leen-ek hustu zuen bere gilborrean garagardo gehiena eta, hala jarraitu zuen):

— Irri egin didazue, zuen iritziz barregarri omen diren nire kezkenatik. Barkatzen dizuet; izan ere, ez baituzue susmatzen zerulurretan gure filosofiak ulertzen ez duenik ezer, gure William bikainak dioenez. Ez dakizue asko jasan izan dudala, asko sufritzen dudala, torturarik garratzenak ere bai, zuen barreak direla medio... Bai, berriz diotsuet. Ezin dut lorik hartu, argitan ez dela; jasanezina zait etxe hutseko bakarda-dea; ikaraz betetzen nau bidertzeko txaradiei ilunabarrean darien zaratak. Ez zait batere atsegin mozoloa edo xaguxarra hegaka ikustea; nonahiko hiritara noala ere, ez naiz kanposanturik ikus-

tera joaten. Gauza makabroetaz hizketan jarduteak martirizatu egiten nau, eta jardun izan naitzenetan, egunsentiaren zai egoten dira, gero, nire begiak loaren maitasunean ixteko.

Izuikara diot, ene jainkoa!, aipatu beharra dudanari: heriotzari. Ez nindukete sekulan egon naraziko hilotzik legokeen etxean, neure adiskiderik maiteenarena balitz ere. Begira: hauxe da edozein hizkuntzak duen hitzik gaizkorrena: *hilotza* Barre egin didazue, barrez ari zatzaizkidate: bejondizuela. Utz iezadazue, hala ere, neure isilpeko egia esaten. Errepublika Argentinara iheska heldu naiz, neure aitak, Leen doktoreak, errukigabe bahitu ninduelarik, bost urtez preso egon ondoren; hura, jakintsu handia izan arren, bandido handia ere bazelakoan nago. Haren aginduz eraman ninduten gaixotetxera; haren aginduz, bai; ezkutu gorde nahi zuena egunen batez ager ziezaiekeen beldur baitzen agian... Zuei ere jakinaraziko dizuet orain, ezin baitut gehiago gorde isilpean.

Jakin ezazue ez nagoela mozkortua. Ez naiz erotua egon. Begira zergatik agindu zuen ni bahitzeko... Arretaz entzun.

(Argala, ile argia, urduria, zirrara batez maiz astindua jasotzen zuen soina, lagunez inguraturik, bururakizun hauek zerbezategiko mahaian kontatzen zizkigula. Nor da Buenos Aires-en eza gutzen ez duenik? Ez da batere ganoragabea eguneroko bizitzan. Horrelako joaldiak noiz-behinka eduki ohi ditu. Irakasle lanean, gure ikastetxeetako batean ditugunetan estimagarrienetarikoak dugu; mundu-gizon izatekotan bada, berriz, isil samarra den arren, *cinderellas dance* ospetsuetan, gazteen arteko elementurik onena da. Honela jarraitu zuen gau hartan bere kontakizun harrigarria, gure lagunaren izaera aintzat harturik, fumisterie-tzat jotzen ausartu ezin bagara ere. Irakurlearen baitan uzten dugu gertakizunak erizpetzea.)

— Gazte-gaztetan galdu nuen ama; eta, aita-
ren aginduz, Oxford-eko ikastetxe batetara bidali ninduten. Gure aitak ez zidan behin ere maitasunik agertu, eta, urtean behin etortzen zitzaidan Londrestik bisitatzera, espirituz bakarti, maitasunik eta losintxarrik gabe hazten nindoan hezkuntzategi hartara.

Han ikasi nuen tristea izaten. Gorputz-itxuraz amaren argazkia nintzen, esan izan didatenez, eta, *uste dudanez, horregatik saiatzen zen dok-torea niri ahalik eta gutxien begiratzen*. Honetaz ez dizuet besterik ezer esango. Nire gogoetak dira. Ez aintzat hartu nire kontakera.

Topiko hau erabiltzera heldu naizenean indar ezagun batek bihotza samurtu dit. *Uler nazazue, arren*. Zera diot, alegia: espirituz bakar bizi nintzela, gaur oraindik ere, gau ilargitsuetan, neure irudimenean ikusten ditudan harresi beltzeko ikastetxe hartan... Ikasi nuen bai orduan, nola gainera!, tristea izaten! Oraindik ere, neure gela-ko leiho batetik, zumarrak, zipresak... ikusten nago ilargi islada zurbil gaiztotan aseak. Zergatik ote zeuden zipresak ikastetxean?... eta parkean zehar zurrundutako Terminondo zaharrak, denboraren legena erakusten. Eta han berrogeita hamar urte gainean zituen erretore makur gorrotagarriak hontzak hazten zituen... *Zertarako hazten ote zituen erretoreak hontzak?*... Eta gauaren unerik isilenean, gau-hegaztien hegalo-tsa eta mahaien txirrioa entzuten dut, eta, gauerdian, dei hau: «James». Dei lazgarria!

Hogei urte bete nituelarik, egun batez, aita ikustera zetorkidan berria eman zidaten. *Poztu egin nintzen, neure barnean harenganako ezinikusia nabaritzen banuen ere*. Poztu egin nintzen, une hartan neure barrua norbaiti hustu beharra bainion; *besteri ezinean harixe*.

— Besteetan baino erakorrago etorri zen, eta, aurpegiz-aurpegi begiratzen ez zidan arren, haren ahotsa irmoa zen, niganako onginahi apur bat ere adierazten zuela. Zera esan nion: ikasketak burutu nituenez gero, Londresa itzultzeko gogoia nuela; etxe hartan luzaroago jarraitzekotan, hil egingo nintzela tristuraz... Zorrotz, baina, erakor samar barreiatu zen haren ahotsaren oihartzuna:

— Hain zuzen, gaur bertan zu hemendik eramatea pentsatu dut. Ez zaudela osasunez batere ondo, adierazi dit erretoreak: lorik hartu ezina, jateko gogo gutxi... Gehiegizko ikas-lana ere txarra da, beste gehiegikeria guztiak bezalaxe. Gainera, zera esan nahi nizun: badut beste arrazoi bat zu Londresa eramateko. Nire adinak tinkagailu baten beharra du, eta, bila ibili naiz. Baduzu, beraz, ugazama, eta aurkeztu behar dizut,

bera ere zu ezagutzeko irriki bizitan baitago. Horregatik, gaur bertan etorriko zara nirekin.

Ugazama! Neure amatxo zuri, ile argi, gozoa etorri zitzaidan gogora bat-batean, txikitan zinez maite ninduelarik hainbeste bizkortzen ninduen hura; aitak ia abandonaturik zeukan; izan ere, gure ama, lore gaixo single hura, desegiten zihonan bitartean, aita, laborategi nazkagarri hartan egoten baitzen gau eta egun... Ugazama! Leen doktorearen emazte berriagandiko tirania, agian *blue-socking*, jakintsusteko emanker bat, sorgin bat... —barka hitzak—, zatekeenarengandiko tirania jasan beharko nuen beraz. Aldiz ez dakit zer diodan, edo eta agian gehiegi dakit...

Ez nion hitzik erantzun aitari, eta haren asmoari jarraituz, Londresko geure bizilekura eramango gintuen trena hartu genuen.

Iritsi orduko, ate zahar handian barna sartu orduko, egoitza nagusira igotzeko eskailera aurrean, harridura zakar batek hartu ninduen: lehengo zerbitzarietatik bat ere ez zen ageri etxean.

Lauzpabost agure txepel, morroi-jantzi beltz zabalegiak soinean, makurtu zitzaizkigun igaro-

tzerakoan, berantegi eta mutu belaunikatuz. Areto handian sartu ginen. Dena aldatua zegoen: lehengo altzarien tokia betetzen, gustu lehor eta hotzez aukeratutako tresneria ageri zen orain. Lehengoetatik gauza bat bakarra zegoen aretoaren barru-barruan gure amaren erretratu handi bat, Dante Gabriel Rossetti-k egina, krespoizko zapi luze batez estalia.

Aitak neure geletara eraman ninduen; ez zeuden haren laborategitik urruti. Arratsalde on! batez agurtu ninduen. Esplika ezineko gizaitxura hartuz, ugazamaz galde egin nion. Patxaran erantzun zidan, ahots erdi maitati, erdi beldurti, silabak tinkatuz, orduan ulertu ez nituen hitz hauekin:

— Gero ikusiko duzu... Ziur ikusiko duzula... James, ene semetxo James, agur. Gero ikusiko duzula diotsut.

Jaunaren aingeruak, zergatik ez ninduzuen zeurokin eraman? Eta zuk, ama, ene amatxo, *my sweet Lily*, zergatik ez ninduzun zurekin eraman une haietan? Nahiago nukeen leize batek irentsia, haitz batek hauts egina, edo, tximistaren suak errauts bihurtua geratu banintz...

Gau hartan bertan izan zen, bai, gorputz-ari-
mak neke arraro batek hartuak nituela. Ohean
etzana nengoen, bideko arroparik erantzi gabe.
Gogoan dut, lozorroan bezala: zerbitzari zahar
bat entzun nuen neure gelarantz hurbiltzen, aho-
pez ez dakit zer kontu esaten, eta, amets txar
baten ondorioa sentiarazten zidaten, begitxo
pare saihestuez ezarian niri begira. Gero, kande-
lero bat pizten ikusi nuen, hiru argizariduna.
Bederatziak aldera esnatu nintzenean, argiza-
riak pizturik zeuden gelan.

Garbitu nintzen. Aldatu. Gero, oinotsak. Aita
agertu zitzaidan. Lehenbidikoz, *lehenbizikoz!*,
haren begiak nireetara zorroztuak ikusi nituen.
Begi deskribagaitzak, benetan; sekulan ikusi ez
dituzuen bezalako begiak, ez ikusiko ere: begi-
sarea ia gorria zuten begiak, untxi-begien antze-
koak; haien begiratu bereziak dardarka jarriko
zintuzkete.

— Goazen, seme, ugazama zai daukazu. Han
dago, aretoan. Goazemazu.

Han, koruko aulkien antzeko besaulki erres-
paldo garaidun batean, emakume bat zegoen
eserita.

Emakume hura...

Eta aitak:

— Hurbil zakizkio, semetxo James, hurbil zakizkio.

Oharkabeen hurbildu nintzaion. Emakumeak eskua luzatu zidan... Orduan, erretratu handitik krespoiz bilduriko erretratu handi hartatik bailetarren, Oxford-eko ikastetxean entzuniko ahotsa entzun nuen; oso tristea, ordea, askoz tristea-goa: James!.

Luzatu nion eskua. Haren eskua ukitzeak izoztu egin ninduen, ikaratu. Izotza nabaritu nuen hezurretan. Esku zurrun, hotz-hotz hura... Eta emakumeak ez ninduen begiratzen. Agurhitz bat totalkatu nion, itxura onean.

Eta aitak:

— Ene emaztea, hemen duzu zure ugazamea, gure seme maite maitea. Begira ezazu, hona hemen; zure seme ere bada orain.

Eta ugazama begira jarri zitzaidan. Matrail-hezurak bata bestearengan tinkatu zitzaizkidan. Izuak harrapatu ninduen: *begi haiek ez zuten inolako distirarik*. Ideia erogarri bat, ikaragarri-ikaragarria, hasi zitzaidan argi eta garbi burura-

tzen. Bat-batean, usaina, usaina... *usain hura*, ene ama! Ene Jainko! Usain hori... ez dizuet esan nahi... bai baitakizue, eta zinez ohartarazten zaitzuet: oraindik ere eztabaidan nago; ileak zutitzen zaizkit.

Eta gero, emakume zurbil, zurbil-zurbil, haren ezpain zurietatik ahots bat jaulki zen, suil nigarti batetik edo luto batetik letorkeena bezalako ahotsa:

— James, gure James maitea, nire semetxo, hurbil zakizkit; musu bat eman nahi dizut beko-kian, beste bat begietan, beste bat ahoan...

Ezin nuen gehiago. Garrasika hasi nintzen:

— Ama, lagundu! Jainkoaren aingeruok, lagundu! zeruetako ahaltsu guztiok, lagundu! Alde egin nahi dut hemendik azkar, azkar; atera nazatela hemendik!

Aitaren ahotsa entzun nuen:

— Lasai zaitez, James! Lasai zaitez nire semea! Ixo, seme!

— Ez! —hots egin nuen bortizkiago, artean zerbitzari zaharrekin borrokan—. Irtengo naiz, bai, hemendik; eta Leen doktorea asesinotzar bat delaesango diot mundu guztiari; bere emaz-

tea banpiresa dela; gure aita hildako batekin
dagoela ezkondua!

Honorioren amets gaiztoa

Non? Urrutian, arkitektura arraroen monumentu-ikuspegi zanpagarriak, ameslari elkar-teak, neurritz gaineko ekialde estilo gailenak ageri dira. Haien oinetan, zoru ospela; urrutiegi gabe, zuhaitz goibel medarrezko landaredia, errukigabeko zero isil arrotzerantz adarrak arrenka dituela, aiuma mutuaren nola-halako adierazpenean. Bakardade hartan, lotsa hotzaren mende nabaritzen du Honoriok bere burua.

Noiz? Gogoangarri ez den orduan; agian denborari ihes eginiko hondar aleren batean. Ikusten den argia ez da eguzkiarena. Izarki espektrokoien argidura mottel fosforotiaren antza du. Honorio halabehar-une baten eraginpean dago murgildua; eta, badaki, ordu ulergaitz horretan, dena larritasun orokor baten gandu oinazetsuan bildua dagoela. Gai dietara begiak jasotzen dituenean, zirrarak astintzen dizkio nerbio-hari guztiak: zero sakonetik misteriozko izar-multzoak jaio dira, laster gerta daitezkeen hondamendi erremediagaitzen adierazikur enigmatikoak osa-

tzen... Honoriori, estu eta larri baitago, aiuma kupigarri batek alde egiten dio ezpainartetik: Ai!

Eta, haren ahotsa indar mirarigilez jantzia bailegoen, dorrez, arrotondaz, arkuz eta espiralez beteriko hiritzar hark lurra jo zuen, ez zarata eta ez porrot, armiarma-hari medarra puskatu ohi den bezala.

Nolaz eta zergatik agertu ote zen Honorioeren oroimenean ameslari baten honako esaldi hau: *Giza aurpegiaren Tirania?* Bere buru barnean entzun zuen hark, eta jainkoki krudel bati barre-garritarako oparizat eskainia bailegoen, zera ulertu zuen: martirioaren, ezarri behar zioten martirio ikaragarriaren garaia hurbiltzen zihokiola... O, kondenatua eta bakarrik dagoenaren nozimendu adierazgaitza! Haren gorpuzkiak harri bihurtu ziren, lokarri lotsagarriz estuki korapilatuak. Ileak zutitu egin zitzaizkion, Job-i espiritu bat ondotik pasa zitzaionean zutitu zitzaizkion bezala. Mihia sabaian erantsi zitzaion, hotz eta ibilgaitz; eta haren begiak, zabalik eta tinko, hondamendirako desfilea ikusten hasi ziren. Aurpegi-irudien neurrigabeko taldea agertu zitzaion

aurrean, eta Imintzioen kontaezin ahalako guda-
rostea.

Jende urduriek loberrian ikusi ohi dituzten
ikaragarritzko aurpegitzarrak lehenbizi, erraldoi
gazteen aurpegiak, mehatxari, pentsati edo
samur.

Ondoren...

Astiro-astiro, ikuskari nekoso hartan, marra,
ertz eta nabarmenkiei antz ematen joan zen:
bekoki soila eta begi loguretsuak zituen *pasa*
bat; errege asiriarren aurpegia, bizar txikordatu
eta guzti; papo gizendun Vitelio bat; eta beltz
bat, beltza, parrez leherturik. Maskara zuri bat
adierazpide guztietan biderkatzen: Pierrot. Pie-
rrot eragabea, Pierrot maitakorra, Pierrot inozoa,
Pierrot ikaragarria, Pierrot barrez txorabiatzen;
samin, pikaro, txepel, ustetsu, anker, gozo, kri-
minala: Pierrot-ek zimurduraz, imintzio, keinu
eta aurpegi-bihurketaz agertzen zuen bere ari-
maren poema. Honen atzetik fartsa eta gorpuzte
sinbolikoen tankera guztiak zetozen. Hala, ehun-
ka johnbulles mutur-gorri eta osaba samuel gaiz-
tok izugarritzko txisteratzarrak jasotzen zituzten,
eta atzetik, Punch-ek haien begiratuen malizia

piztarazten zuen bere sudur makurraren gainean. Begi kakoxtunak eta ojibal erako biboteak zituen mandarin baten inguruan, fraile potzolo bat, bere mutur okerrean begi-ninitzat sartuak bi babarrun beltz zeuzkala; frantses-sudur luzeak, aleman-matrailezur indartsuak, Italiako bibotezarrak, espainiarren bekainak; aurpegi exotikoak: Baltasar Errege beltzarena, Quincey malaioarena, pertsiararena, gautxoarena, toreroarena, inkisitorearena... «O, Jainkoa...» —egin zuen arren Honoriok—. Orduan, ahots bat entzun zuen nabarmen esaten: Oraindik ez, jarraik azkeneraino! Eta hiri-bizitza arrunteko jendetza txindurrikoa agertu zitzaion, Gizon deritzaion izakiaren egoera, irriki, adierazindar, sen guztiak irudikatzen. Jakintsu ispilutxodunaren burusoil zabala, bankero gizenaren aurpegian argitsu ageri den sudurra, alkoholezko harribitxi amorratuz dotoretua; aho baldar lodiak; matrail-hezur irtenak eta aberekien matrail gorenak; musualde zurbilak, errentari goibelaren itxura, tisikoaren begiratua, aretoetako ergelkumearen itxuroneko irri epela, eskalearen otoi-jarrera; honako hiru kargudun hauek: Tribunoa, mailularia eta berriketa-

ria; bakoitza bere jardun beroaren atal diferentetan. «Lagundu!» hots egin zuen Honoriok.

Eta une horretantxe aldatu ziren maskarak, ekialdeko urrearen usain leuna zeruetan galtzen zen bitartean. Maskara taldea! Lehenbizi greziar aktore baten maskara agertu zen, ikaraz larritua eta tragikoa; Eumenide baregaitzen aurrean Orestes-ek zeukakeen aurpegiaren antzekoa; eta beste maskara irritsu bat, erretan txistejario baten itxurakoa. Oroibidezko fenomeno baten eraginez, japoniarren teatroa etorri zitzaion burura Honoriori, eta, ondorioz, nipoi maskarak azaldu ziren ibaika: Idzoukoushima-ren altxorreko maskara irritsu hortzik gabea; Dem Jioman bat, bere masaila bilduek, hiru zuldarez hornituriko bekokiak eta sudur zabalak abelkien gaztetasun goitiarraren itxura ematen ziotela; Noriakiren aurpegiak, itsustasun erasokoiz jantziak; Quasimodo asiatarren imintzioak, eta jainko maskara distiratsuak, denak urrezkoak. Txinatik Lao-tse, bere buruhezur handitzarrarekin; Poutai, benetan zentzuberak, inozo-irria berarekin duela; Konei-Sing literatur-jainkoaren deabru-maskara; eta, euren kasko, perila eta bibote

urriekin, mandarin eta gerrarien maskarak doaz errenkadan. Azkenik, basa-lar gorrizko eta har-gorrizkoa zirudien sutea ikusi zuen. Honoriok eta haien begiratuen aurrean, hegaztatu egin zen ihaute mozorrodia. Begi guztiak: almendra era-koak, borobilak, triangelu erakoak, ia tankera gabeak; sudur guztiak: zapalak, roxelanatiarrak, borbonak, jaikiak, konikoak, zakil erakoak, ezja-torrek, leizetsuak, komentutiarrak, martzialak, izentsuak; aho guztiak: arkeatuak, ilargierdizko-ak, ojibalak, zulagailuz irekiak, ezpain lodidunak, mistikoak, zentzuberak, gozozaleak, ziztrinak, zakurrenak, zapoenak, zaldienak, astoenak, zerrienak, delikatuak, gainezkakoak, desbrida-tuak, makurrak...; grina guztiak; janedanarena, inbidia, luxuria, zazpi pekatu-buruk hirurogeita hamar zazpikoz biderkatuak...

Eta Honoriok ezin zuen gehiago: bat-bateko txorabioa nabaritu zuen, ametsezko itzalune gozo batean geratu zen, lhauterietako konpartsa alaiaren akordeak belarrietara zetozkion bitar-tean.

Andereño ameliari gertatua

«Z» doktorea, argia, hiztun ederra, konkistalaria dela; uka zeniezadakete, edo eta, dena ez bada ere, onar; ahots sakona eta, aldi berean, bizia duela; haren jarrera menderakorra eta misteriotsua dela, batez ere, *Ametsezko plastika* deritzan bere obra argitaratu zenez gero. Baina, haren burusoila besterik ez bezalakoa, harrigarria, ederra, ospagarria, lirikoa nahi baduzue, denik, o!, hori ez! horretaz ziur nago! Nola uka zeniezaiokete eguzkiari argia, arrosari usaina, eta zenbait bertsori narkosis indarra? Hara ba, bart gaueko hamabiak, Lowensteinger deritzan judutar sibarita horren jangela rokoko politean, Boederer-ik jatorrenaren hamabi tapoi-tiroz agurtu genituenean, doktorearen burusoilak nabarmenago erakusten zuen, harrotasunez inguratua, bere marfilezko borobildura leuna; izan ere, haren gainean, argiaren gutzialdi bat zela medio, ispilu baten kristalean bi argiontziren garrak ikusten baitziren, ez dakit nola, Moisesen adar argitsuak ziruditela. Doktorea nire

aldera begira ari zen bere imintzio handiak egiten eta bere hitz jakintsuak esaten. Niri, ia beti isilik neuzkan ezpainenatik, nola-halako esaldi bat jaulki zitzaidan. Adibidez, hauxe:

— O! Denbora geldituko balitz!

Doktoreak, nire harridura-hitzak entzutean, zuzendu zidan begiratuak eta ahoa dotoretzera heldu zitzaion irri moldeak, aitortzen dut, edozein asaldaraziko zukeela.

— Jauna, —esan zidan, txanpaina dastatuz—, gaztediaz erabat itxarogabetua ez baldin banengo, ez baldin baneki gaur bizitzen hasi zareten guztiak jadanik hilik zaudetela, arimaz hilak alegia, sinesmenik gabe, garrik gabe, idealik gabe, barriez ile-zuri, maskara bizidunak besterik ez zaretela..., bai, hori ez baldin baneki, zuregan, mende bukaerako gizon soila baino, zerbait gehiago ikusiko banu, oraintxe bota duzun esaldi horrek: «O! denbora geldituko balitz!», niregan erantzunik asegarriena daukala esango nizuke.

— Doktorea!

— Bai, berriro esango dizut: zure axolagabeziak ez dit uzten garai batean ohi nuen eran mintzatzeko.

— Sinesten dut —erantzun nion ahots sendo eta barez— jainkoagan eta haren Elizarengan. Sinesten dut mirarrietan. Sinesten dut izadiz gairik gaitan.

— Orduan, irri eragingo dizun zerbait kontatuko dizut. Nire kontakizunak zer pentsaturik emango dizulakoan nago.

Jangelan lau gonbidatu geratu ginen, etxeko jaunaren alaba Minnaz aparte; Riket kazetaria, Pureau abadea, Hirsch-ek bidali berria, doktorea eta ni. Urrutian, aretoetako alaitasunean, urte berriaren lehen orduan ohi diren hitzak entzun genituen: *Happy new year! Happy new year!* Urteberri on!

Honela jarraitu zuen doktoreak:

— Nor da, «*hau horrela da*», esaten ausartuko den jakintsua? Ez dakigu ezer. *Ignoramus et ignorabimus*. Nork daki zehazki denbora zer den? Nork daki ziur espazioa zer den? Alderokabil zientzia, itsuaren antzera eta, aldiz, irabazi duelakoan jartzen da, egiaren isla nahasi bat

ikustea lortu duela eta besterik gabe. Ez da inor bere zirkulu aldagaitzetik suge sinbolikoa askatu ahal ukan duenik. Hiru bider handiagoa den Hermes-engandik gaurdaino, giza eskuak doi-doi jaso ahal ukan du marra batean Isis eternoaren mantu ertza. Ezer ez da erabat jakin ahal izan Izadiaren hiru adierazpide handietaz: gertakarie-taz, legeetaz, arauetaz. Nik, misterioaren eremu mugagabeen sakontzen saiatu naizen honek ia itxarobide guztiak galdu ditut.

Nik, akademia ospetsuetan eta liburu lodie-tan jakintsu deitzen nauten honek; nik, bizitza osoa gizadiaren, bere sortze eta helburuen berri ikasten eman dudan honek; nik, kabala-n, ezku-tujakintzan, eta teosofian barneratu izan naizen honek, jakintsu mai: la materialetik *aztikarien* maila izartiarra eta *aztiaren* espirituzko maila-ra igaro naizen honek, Thianoko Apoloniok eta Parazelsok nola jokutzen zuten dakidan honek, eta, oraintsu, Crookes ingelesari bere laborate-gian lagundu diodan honek; buda-tarren Karma eta kristauen mistika sakonki aztertu ditudan honek, eta, aldi berean, fakirren zientzia ezeza-guna eta apaiz erromatarren teologia ikasiak

ditudan honek, zera diotsuet: *jakintsuok ez dugu ikusi argi gorenaren izpi bakar bat ere; eta misterioaren* neurrigabetasunak eta eternitateak osatzen dute *egia* bakar izagarria.

Eta nigana zuzenduz:

— Ba al dakizu zeintzuk diren giza oinarriak? Bizkargaina, korkoxa, lingua, kama-ezpata, rupa, manasa, buddhia, atma, beste era batera esateko, gorputza, bizi indarra, izar-gorputza, abere arima, giza arima, espiritu indarra eta espiritu esentzia...

Minnak aurpegi erori samarra ipini zuela ikusirik, doktoareari hitza moztera ausartu nintzen:

— Zera uste dut agertarazi nahi zenigula, denbora...

— Ongi —esan zuen—, sarreratzat mintzaldirik nahi ez duzuenetz gero hel diezaiogun kontatu nahi dizuedan ipuinari. Hauxe da:

Duela hogeitahiru une, Buenos Aires-en Revall sendia ezagutu nuen; honen sortzailea —frantziar zaldun bikainetarikoa baitzen— Rosas-en garaian kontsul izana dugu. Gure etxeak elkarren auzo ziren; gaztea nintzen ni eta sutsua; Revall-tar hiru andereñoak, berriz, hiru Grazien

pareko. Ez da esan beharrik, maite-sutea pizteko ez zela txinpart askoren beharrik izan...

Maiteee, ahozka ohi zuen jakintsu gizenak, behatz handia txaleko sakelan sarturik, beste behatz potxolo bizkorrez bere tripatzarrean danborra joaz, eta jarraitu zuen:

— Aitor diezazueket ez nuela bata besteak baino begikoago, eta Luz-ek, Josefina-k eta Amelia-k toki bera zutela nire bihotzean. Berbera, agian ez; izan ere, Ameliaren begi gozo bezain kartsuak, haren irri alai gorria, ume-bihurritasun hura... Huraxe nuela begikoen esan behar. Gazteena zen. Ozta-ozta zituen hamabi urte, eta ni hogeita hamarretatik aurrera joana nengoen. Hau zela medio, neskatila bihurria eta jolasgilea izaki, zen bezain neskatotzat hartzen nuen nik, eta beste bientzat joaten ziren erdibana nire begiratu sutsuak, nire hasperenak, nire esku-estutzeak eta nire ezkon-agintza serioak ere, — aitor dezadan—, grina bigamo gaizto eta errudunaren bidetik. Baina, Amelia neskatilatxoa!... Beti berdin gertatzen zen: etxera joaten nintzaienean, hura etortzen zitzaidan aurrena ongietorria ematera, irribarrezko losintxak zeriz-

kiola. Eta nire bonboiak? hara hemen galdera sagaratua. Bozkariotan esertzen nintzen, neure itxuroneko agurrak egin ondoren, eta arrosa koloreko karamelo goxoz eta txokolate-konpittaz asetzen nizekion eskuak, eta sabai, mingain eta hortzarteko musika ozentsua zeriola saboreatzen zituen hark, ahobeteka. Zango erdirainoko soinekoa eta begi xarmantak zituen neskatilatxo harenganako nire atxikimenduaren zergatirik ezin azaldu ahalko dizuet; baina, ikasketak zirela eta, Buenos Airestik alde egin behar izan nuen, Luz-i agur egiterakoan gezur-emozio bat azaldu nion, berau begi zabal, samin eta sentimentalez begira zegokidan bitartean; Josefinari faltsuki estutu nion eskua, honek nigarrari eutsi ezinik batistazko musu-zapi bat hortzakatzen zuen bitartean; Ameliaren bekokian, ordea, musu bat ezarri nuen, bizi guztian eman izan ditudanetan, —ez dakit— musurik xalo eta sutsuena, garbi eta gartsuena. Eta Kalkutaruntz abiatu nintzen itsasuntziz; Zuek hain maitatua zenuten Mansila jeneral harrigarria, gaztetasunez eta urrezko esterlina ozentsu distiratsuz betea, Ekialdera, joan zenean bezalaxe. Jadanik

ezkutuko zientzien jakinminez betea nindoan, mendebaldeko zientzia ahulak oraingoz irakas ez diezagukeena Indiako mahatma-en artean ikastera. Madama Blavatski-rekin neukan esku-titz-harremanak eremu zabala zeukidan irekia fakirren herrialdean, eta bazen guru bat baino gehiago, nire jakinminaren berri jakinik, egia sagaratuaren iturriraino bide egokitik ni eramateko gertu zegoenik; hala ere nire ezpaineak diamanitezko ur fresko haietan ase zirela uste izan zutenarren, nire egarria ez zen baretu ahal izan. Bila, arretaz ibili nintzen nire begiek ikuskatu nahi zutenaren bila, Zoroastro-ren Keherpas-a, pertsiarren Kalep-a, indiar filosofiaren Kovei-Khan-a, Parazelso-ren artxoenoa, Swedenborg-en linbuz-a; entzun nuen monje budatarren hitza Thibet-eko txaharadien erdian; ikasi nituen Kabala-ren hamar sephiroth-ak, mugagabeko espazioa sinbolizatzen duenetik hasi eta, beregan biziaren oinarria daraman eta Malkuth deritzanarenganaino. Espiritua, haizea, ura, sua, goia, sakona, Ekialdea, Mendebaldea, Iparra eta Hegoa aztertu nituen; Satan, berriz, ia ulertu eta ezagutzeraino ere heldu nintzen; bai eta Luzifer,

Astharot, Beelzebuth, Belphegor, Asmodeo, Mabema, Lilith, Adrameleh eta Baal ere. Neure uler-grinan, jakinduri egarri asegaitzean, neure gurariak lortzera heldu nintzela uste nuenean, neure ahultasunaren agiriarekin eta pobretasunaren adierazpenekin topo egiten nuen, eta honako ideia hauck: jainko, espazio, denbora ideiek, laino gandurik itxiena eihotzen zuten nire begien aurrean... Asian, Afrikan, European eta Amerikan zehar ibili nintzen. Nik lagundu nion Olcott koronelari New Yorkeko teosofia adarra eraikitzen. Eta, hauek honela, —gaineratu zuen doktoreak Minna ile-argiari zorrozki begira—, ba al dakizue zientzia eta den guztiaren hilezkortasuna zer den? Bi begi urdin... edo beltz!

— Eta Ipuinaren bukaera? —galde egin zion, intziri mehe batean, andereñoak.

— Zin dagizuet, jaun-andreok, kontatzen ari natzaizuena egia berdaderoa dela. Ipuinaren bukaera? Duela astebetetsu itzuli naiz Argentinara, hogeituz kanpotik ibili ondoren. Gizen-dua etorri naiz, gizen samarra, eta burua belau-na bezain soil dudala; baina, gartsu iraun dit bihotzean maitasunaren suak, mutil zaharren

bestalak. Eta, beraz, Revall sendia nondik nora ote dabilen saiatzea izan da nire lehenbiziko eginkizuna. «Revall-tarrak —esan zidaten—Amalia Revall-en auzokoak!», eta hitz hauek irribarre berezi bat zeramaten lagun. Bururatu zitzaidan Amelia gaixoa, neskatilatxo gaixoa... Eta, bila eta bila nenbilela, topo egin nuen etxearekin. Sartu nintzenean, morroi beltz zahar batek hartu ninduen, eta, honek eraman zuen nire txartela; dena tristeaire nahasi batez jantzia zegoen areto batetara pasarazi ninduen. Paretetan lutuzko zapiz estaliak zeuden ispiluak; eta, bi erretratu handitan bi ahizpa zaharrenak ezagutu ahal ukan nituen, pianoaren gainean elkarri melankolikoki begira. Geroxeago, Luz eta Josefina:

— O, lagun!, O, lagun!

Besterik ez. Gero, ezkutu-mezkutu, elkarrizketa beldurtia, totalka eta hitz burutsu tristez, oso tristez burutua. Ulertu ahal ukan nienez, ezkongabe zirautelakoan geratu nintzen. Ameliari buruz, ez nintzen ezer galdetzera oldartu. Agian, ironia garratz bat iduri, zoritxar erremediagaitzen bat eta desohoreren bat oroitaztera etor baitziezaiekeen nire galdera gajo haiei...

Honetan, neskato bat ikusi nuen saltoka etortzen; haren gorputza eta aurpegia nire Amelia gaixoarenak bezalakoxeak ziren. Hurbildu zitzaidalarik, berarentxen ahotsez, zera esan zidan handiki:

— Eta, nire bonboiak?

Ez nuen jakin zer esan.

Bi ahizpak elkarri begira geratu ziren, zurbil-zurbil, atsekabez buruari eragiten ziotela.

Azken agur bat ahoskatuz eta ezker-erreberentzia bat eginik, kalera irten nintzen, haize arrotzen bat atzetik zetorkidalakoan. Geroago, guztiaren berri jakin dut. Okerbidezko maitaldiren baten fruitutzat jo nuen neskatoa, Amelia zen; duela hogeita hiru urte agurtu nuena bera. Hautzaroan geratu baita, bizitzaren joana gera-raziz. Geldi dago harentzat denboraren erlojua, ordu jakin batean.

Nork jakin Jainko eskutuaren zein asmotarako!

«Z» doktorea erabat buru-soila zen garai hartan...

Beronika

Pasioko Frai Tomas zientziaren deabruak nahasia zerabilen espiritua zen. Argala, angelutsua, urduria, zurbila. Otoitzean, esaneko izaten, eta laborategian ematen zituen komentuko bere orduak. Antzinako zientzia ezkutuak ikasten jarduna zen. Halako handikeria batez aipatzen zituen, jangelako berriketaldietan, Parazelsoren eta Alberto Handiaren izenak; miragarri zitzaion, berriz, kresala azufrearekin nahastearen mesedea egin zigun eta Schwarts zeritzan fraile hura.

Zientziari esker, astrologiaren eta kiroman-tiaren zenbait hastapenetan aurreratzeraino heldua zen; honek kontenplakizunetik eta Idatzi Santuen espiritutik saihestu egiten zuen. Jakin-grinaren gaitzak joa zeukan arima; otoitza bera ere ahazten zitzaion, esperimentaldiren batek pentsati eta burubero jartzen zuenean. Zeuzka-keen zahori-ahalmenak eta aztikeria zuriaren ondorioak frogatzen saiatzeraino ere heldu zen. Ez da dudarik, haren arima arrisku handitan zebilela, bere jakin-grina zela medio, eta zien-

tzia, hasieran Sugearen arma besterik ez bada ere, azkenean Antikristo bilaka daitekeela ahaztu zitzaiolako.

O, zorioneko ezjakintasuna! O, ezjakintasun santua! Pasioko Frai Tomasek ez zuen ezagutzen zure bertute zerutiarra; Hagiografien dirdira mistiko eta miraritsuen artean, Jainkoaren zenbait zerbitzari ñimiñori ninbo berezia ezartzen dien bertutea. Doktoreek handiki azaltzen dute eta komentatzen, nola Espiritu Santuaren begientzat arima maitasuntsuak aintzagarriago diren, arima burutsuak baino. Margotuak ditu Hello-k bere *Santu irudien vitreaux* bikainetan Karitatearen ongile horiek, apaltasunez eder diren horiek, usapal diruditen izaki horiek, lirioak bezain xume eta zuri, bihotzez garbi, espirituz behartsu, jaunaren txoriñoen zorioneko senide, zeruetako izarrek ere begi maitale eta senidekoiz begiratzen dituzten horiek. Huysmans-ek, Durkal zintzo bihurtzen den liburu zoragarrian, distira paradisiutiarrez jazten du lego urdezaina; izan ere, honek arkaingeru koruen harridura eta zeruetako ahaldunen txaloa txerritegiraino erakartzea lortu baitzuen. Pasioko Frai Tomasek ordea, ez

zuen hori ulertzen. Hark sinesten zuen, benetako sinestunaren fedez sinestu ere. Baina, jakingri-
nak zirikatu egiten zion espiritua; izadiko ezkutu-
kien aztertzeraz bultzatzen zuen. Halakoxea zen
bultzada hau, ze ezin baitzuen ulertu jakingose
hori, estalkipean barneratzeko irriki mendera-
gaitz hori; pekatuaren lana, eta, Leizekoak, Aita
eternoaren maitasunerako erabat bizitzea gala-
razteko, zerabiltzan azpikeriak zitezkeenik.

Heldu zen, ba, Frai Tomasen eskuetara
Roentgen doktore alemanaren aurkikuntza, gor-
putz opakoetan zehar argazkia ateratzeko era
asmatu zueneko, zehazki azaltzen zuena; jakin
zuen Crookes-en hodia, argi katodiko eta X izpia
zer ziren. Ikusi zuen esku baten barne anatomia
guztia gardentzen zuen faksimila eta kaxa itxien
barruan erretrataturiko gauzen irudi garbia.

Orduz geroztik, erabat galdu zuen lasaitasu-
na. Nola aurki ote zezakeen berak jakintsu haien
aparailuaren antzeko tresna? Nola egin ote zez-
akeen bere komentuan, irudimen gaixoan milaka
pilatzen zitzaizkion, gauza haiek guztiak?

Beste komentukideak ohartzen ziren otoitz
orduetan eta kantukoan oldozkor, bat-bateko

asaldaketaz irabiatua zebilela; aldiz, aurpegia gorri ipintzen zitzaion odolak hartua; hurrengoan, begiak, estasian iduri, zeruan tinkatuak edo lurrean josiak zituen. Pekatuaren lana zen; bihotz menderatu haren barnean tokia hartzen baitzihoan; jakingrina: Bibliako pekatua, on eta txarrari dagokion zientzia, arbolaren aurreko Adanen pekatua.

Multzoka zetozkion ideiak burura fraileari, aparailu zoragarri haiek nola eskuratu ezin asmatu zuen bitartean. Zenbateko bere bizitzaren zatia ez ote zukeen emango hark jakintsu berri haien tresna bitxiak bere fraile-laboretegi arruntean ikusi eta, irrikiz nahi zituen frogak ateratzeagatik!, giza jakinduriari aro berria irekitzera zetozen entseiu zoragarriak egiteagatik! Horrela jarraituz gero, ez zitekeen ezina bizi misterioaren giltza aurkitzea... Jadanik gure gorputzaren barrua argazkiratzen bazuten, agian laster izadia bera, eta, arimaren sorburua begiz ikustera hel daiteke gizakumea; eta zientzia, jainkozko gauzetan erabiliz gero, —zer dela eta ez?—, estasiako ikuskarietan eta espiritu zerutiarren agerpenetan alegia, lor dezake haien tan-

kera zehatz eta benetakoak kaiolaratzea... Lurdes-en, Bernardetteren garaian, instantaneo bat atera izan balute!... Jesus edo haren Ama Santua zenbait aukeraturi agertzen zaionean, kamara iluna erabiliko balitz... O, orduan bai komentzitu-ko lirakeela gaiztoak! Orduantxe bai erlijioa garaile!...

Horrelako pentsakizunetan zebilen fraile gizarajoa, burua apurtu beharrean, ilundietako printzerik amorratuaren tentaldipean.

Eta, zera gertatu zen: une haietako batean, irrikialdi bizienaren mende zegoen garaian, zeldan esanekoa egiten eta otoitzean egon behar zukeen orduan, komentuko fraileetako bat etorri zitzaion, abitupean pardel bat zeramakiola.

— Anai —esan zion—, jakintsuek munduaren harrigarri darabilkiten makina horietako bat nahi ze nukeela entzun izan dizut. Lortu ahal ukan dut bat zuretzat. Hemen daukazu.

Eta Tomas harrituaren eskuetan pardela utzi, eta desagertu egin zen; hau, ordea, ez zen ohar-tu, desagertu zitzaion unean, bi aker hanka era-kutsi zituela hark abituaren azpitik; ez baitzuen horretarako betarik. Tomas bere esperimantal-

diei atxiki zitzaien, opari misterioetsua hartu zuen egunetik. Maitinetan huts ematen zuen, ez zen mezetara joaten, gaixorik zegoen aitzakiatan. Aba Probintzialesak akar egiten zion; arrotz eta misterioetsu zebilela ikusten zuten denek, eta haren gorputz-arimetako osasunaren beldur ziren.

Eta, berak zer egiten zuen?

Bere eskua, fruituak, liburu barruetako santuak eta beste zenbait gauza argazkiratu zituen.

Gau batez, gizarajoa, *ausartu zen azkenean bere burutapena* zertzero...

Elizara abiatu zen, espatsu, pauso isilka. Habearte nagusian sartu zelarrik, aldare nagusirantz jo zuen, non olio-kriseilu tristearen argitan, gure Jauna baitzegoen ageri. Ireki zuen sagra-rioa. Atera zuen kopoia. Hartu zuen hostia sagaratu. Iheska alde egin zuen bere zeldara.

Hurrengo egunean, Pasioko Frai Tomasen zeldan

Artzobispo jauna zegoen Aba Probintzialaren aurrean.

— Jaun Txit Argia —ziotsan honek— Frai Tomas hila aurkitu dugu. Ez zebilen burutik bate-

re ondo. Bere ikasketa eta aparailuek kalte egin diotelakoan nago.

— Itzalgarrri horrek ikusi al du hau? —esan zion Jaun Txit Argiak, lurretik jaso zuen argazki-plaka bat erakutsiz; argazkian zera ageri baitzen: Jesukristo Gure Jaunaren irudia, besoak iltzeetatik askatuak eta jainkozko begietan begirazun ikaragarri bat zituela.

Salomon beltza

Behin batean —Salomon azkeneko loaldia-
ren atsedenean sartzera zihoan unean, eta kris-
talezko aretoan satan talde nekatuak lotan dau-
den bitartean—, arratsalde batean zur egina
geratzen da: burdinazko estatua zirudiela, irudi
harrigarri bat agertzen zaio begien aurrean: ilun-
dietako jenio edo printzea. Berak ezagutzen ez
duen ze jenio, ze ilunpetako printze zitekeen?
Haren eraztunaren indarra alper gertatzen zen
agerkari, honen aurrean. Galdezka hasten zaio:

— Zure izena?

— Salomon.

Harrituago dago orain jakintsua. Gero haren
aurpegiko edertasun bereziari begira jartzen da.
Berarenak bezalakoxe itxura eta begiratua
zituen. Berarentxen pertsona zela esan zitekeen,
sekulan ezagutu ez dugun bezalako azabatxez
egina.

— Bai —esan zion Salomon beltz zoraga-
rriak—. Zure berdina naiz, erabat zure alderan-
tzia izatea beste alderik gabe. Mundu diskoaren

aurrealdea zurea da; baina, ni naiz atzealdearen jabe. Zuk egia maite duzu; ni gezurraren erregea naiz, hau baita dagoen guztia. Eguna bezain eder eta gaua bezain oskarbi zara. Nire errainua zuria da. Zuk eguzkiak argitzen duen alderditik aurkitzen diezu gauzei zentzua; nik ezkutukotik. Zuk ilargi argian irakurtzen duzu; nik, ezkutukotan. Zure *djinns*-ak munstroak dira; nireak, edertasunaren eredu direnen artean distiratsu ageri dira. Zuk, aingeruek emandako lau barri daramatzazu eraztunean; deabruek nirean ur ttantto bat, odol ttantto bat, ardo ttantto bat eta esne ttantto bat, ipini dituzte. Zu abereen hizkuntza ulertu duzulakoan zaude; nik badakit hotsak besterik ez dituzula ulertu, ez duzula hizkuntzaren muinik ulertu.

Artean isilik egon zelarik, honela mintzatu zitzaion handikiro Salomon:

Jainko handiaren izenean! Hari eta Hark eginiko onenari oldartzen zatzaizkion espiritu gaizto hori, la ausartzen zara horrelako gauzak ziurtatzen? Gizakiak kutsa daitezke iritzi okerrez; Jaiuaren abereak, ordea, errugabe bizi dira. Nola

eraman nindezakeen auzipera haien pentsamolde kutsagabeak?

Eta Salomon beltzak:

— Dei iezaiozu —esan zion—, «*Izaki guztiek gora bezate Jauna*», idatzia daraman harria eman zion, bale-itxurako aingeruari.

Ipini zuen Salomonek eraztuna buru gainean, eta, itxura gabeko aingerua agertu egin zen.

— Zein da zure benetako izena? —galde egin zion Salomon beltzak. Aingeruak erantzun:

— Agian.

Eta deszertu egin zen. Salomonek abere guztiei dei egin zien, eta, hala esan zion hegazterreari.

— Zer adieraz hidan hik?

Eta *hegazterreak*:

— Nola zuk epaitu, hala epaituko zaituzte. Berdin galde egin zien beste abereei. Eta haiek erantzun:

Urretxindorrak: Neurritz ibiltzea da ondasunik handiena.

Usapalak: Hobe litzaieke izaki askori egunik ikusi ez balute.

Zapelatzak: Besteekiko errukirik ez duenak ez du beretzat ere aurkituko.

Syrdar hegaztiak: Pekatariok, bihur zaitezte Jainkoarengana.

Enarak: Egizue on, eta, jasoko duzue saria.
Pelikanoak: Gora Jainkoa zero-lurretan!

Usopak: Dena igarotzen da. Jainkoa da betiko bakarra.

Kala txoriak: Isilik dagoenak gehiagotan asmatzen du.

Arranoak: Gure bizitzak, luzeena izanik ere, beti joko du azkena.

Baleak: Hobeto bizitzen da gizakiengandik urruti.

Oilarrak: Erabili Jainkoa gogoan, gizaki arinok.

— Ongi! —esan zien handiki Salomon beltzak—. Hik, hegazterre, gezurra diok. Gizartean epai okerra besterik ez duk irteten garaile. Eta, gizartean bezala, abere artean ere uste onak otsoen ahoan ipintzen dizkik bildotsak. Hi, urretxindor, gezurra dion. Indarra erabiltzen duena beste irabaztunik ez da. Neurritasunari urrikeria eta koldarkeria deritzaio. Lehoiak, urjauzi han-

diak, ekaitzak, ez dira neurritsuak. Hik, usapal, gezurra dion, iritzi hori ahulengatik ez badion behintzat. Ludi azaleko krimen bakarra ahuleria da, behartsukeriarekin batera. Hik, zapelatz, gezurra diok. Errukia arinkeria zaitekek. Ai, errukiorrak! Gorrotoa salbatzailea eta ahalduna duk. Zapal itzazue txikiak; errematatu zaurituak; ez eman ogirik gosetuei; gauzaestu erabat herrenak. Horrela lortzen da munduaren bikaintasun osoa. Hik, syrdar, gezurra diok. Zurikeriaren txoria haiz. Gainerantzean, Jainkoak X dik izan; Zero zeritzak. Hik, enara, gezurra dion. Zapelatzaren maitea haiz. Hik, uso, gezurra dion. Bi horien amorantea haiz. Hik, kala, gezurra diok. Orro egin edo trumoia jotzen duenak ez dik isildu behar; haren alde zegok beti arrazoaia. Arrano, bele eta oilar, zozoen kaiolan itxi beharrak zaitzuet. Salomonek ez duela bere aintza guztian nire kontra ezer lortu, bezain ziur esaten dizuet, eta oilarraren begiak ez duela lurraren azalik zulatzen ahal, bezain ziur.

Desagertu ziren abereak. Satanak, iratzarrik, kristal artetik zelatan zeuden. Salomon, larritasun ganduan, bere buruaren itxura ilunduaz hitz

egin zuen harengan begiztatzen zegoen, zeina ezin baitzuen bere salmuketaz menderatu. Eta Beltza abiatzera zihoan, berriro galdera hau egin zionean:

— Nola duzula izena esan duzu?

— Salomon —erantzun zion irribarrez—.

Baina, badut beste izen bat ere.

— Zein?

— Federiko Nietzsche.

Jakintsua lurjoa geratu zen, eta aingeru hego infinitodunarekin Jaunaren egia begiz goatzera joateko gertu jarri zen.

Simorg txoria heldu zitzaion hegaldi bizkorrean:

— Salomon, Salomon, tentatua izan zara. Bizkortu zaitez; poztu. Dabidengan dago zure itxaropena! Eta Salomonen arima Jainkoarekin bat egin zen.

D.K.

Kubako Santiagotik hurbil geunden goarnizionatuak. Gau hartan euria egin zuen; baina, hala ere beroegi zegoen. Espainiatik heldu berria omen zen gudindarreko konpania baten zai geunden, handik alde egiteko; borrokarik gabe etsipen eta amorruez beterik, goseak hiltzen geunden toki hartatik alde egiteko. Konpainia gau hartan bertan zen iristekoa, mezuak zioenez.

Beroak gogor jotzen, eta loak atsedetik eskaini nahi ez zidanez gero, karpatik kanpora irten nintzen arnasa hartzera. Euriak atertu zuelarik, zerua apur bat argitzen zihoan, eta sakon ilunean izar batzuen dirdira ageri zen. Aske utzi nuen buruan pilatua nerabilkien ideia tristezko lainoa. Han urrutian zeuden gauza maiteak — zenbat!— etorri zitzaizkidan gogora: gainerik kendu ezinik generabilen zoritxarra; agian Jainkoak bira zezakeela bere zigorra beste norabait, eta guk bide berri bati hel geniezaiokeela, errebantxa bizkor batean. Hainbeste gauza nituen

gogoan... Zenbat denbora igaro ote zen? Badakit izarrak, poliki-poliki, motteltzen joan zirela. Zelaiaren freskagarri egunsenti aldeko haizeak jo gintuen, eta eguna argitzen zihoan; bitartean, nire belarriei —ez dakit zergatik— tristegarri zitzaien diana bere egunsenti notak barreiatzen ari zen.

Geroxeago, konpainia hurbiltzen zetorrela gaztigatu ziguten. Hala zen. Laster genuen geurrekin, eta gure lagunen agurrak eta gureak eguzki berriarekin nahastu ziren.

Berehala, lagunekin hizketan geunden. Aberriko berriak zekarzkguten. Bazekiten azken borrokaldietako berri. Lurjoak zeuden haiek ere gu bezalaxe; baina, borrokarako, mendeku gorrian astintzeko, etsaiari ahalik eta kalterik handiena egiteko irriki sutsua zeukaten. Gazte bikainak ziren, bat izan ezik; denak gure bila zebiltzan berriketan egiteko, bat izan ezik. Janariak eta abar ekarri zituzten eta banatu. Arrantxo garaian, geure jateko apurra harrapazka hasi ginen jaten, bat izan ezik.

Berrogeita hamar bat urtekoa zen; baina, berdin zeuzkakeen hirurehun. Bazirudien haren

begirazun tristeak gure arimen sakoneraino ikusten zuela, eta, mendeetako gauzak esaten zizkigun. Behin edo beste hitza zuzentzen genionean, ia ez zuen erantzuten ere; irribarre melanholiko bat egin eta bakandu egiten zen bakardade bila; itsasaldetik horizonte aldera begiratu ohi zuen horrelakoetan.

Bandera-eramailea zen. Nola zeritzan? Ez nuen sekulan haren izenik entzun.

Zera esan zidan kapilauak handik bi egunetara:

— Ez dut uste oraingoaz abiatzeko agindua emango digutenik. Jendea borrokarako irrikiz desesperatua dago. Batzuk gaixorik dauzkagu. Azkenik, noiz ikusiko ote genuen bandera gaixo santua aintzaz betetzen? Hauek honela, ikusi al duzu bandera eramailea? Gaixoei laguntzen bere bizia ere jartzen du. Berak ez du jan ere egiten; bere jatekoa besteei ematen die. Hitz egin dut berarekin. Gizon miraritsu eta arraroa da. Izugaitza eta oso jatorra dirudi bihotzez. Zertu ez daitezkeen ametsetaz jardun zait. Hemendik laster Washington-en egongo garela uste du; eta gure bandera Kapitolioan zabalduko duela,

gotzainak bere brindisean esan zuen bezala. Azkenaldiko zoritxarrek sumindu egin dute; babestuko gaituen ezkutuko zerbait badagoelakoan dago ziur. Santiagorengan du konfidantza; gure arrazaren jatortasunean, gure auziaren justizian. Ba al dakizu? Besteek adarra jotzen diote; barre egin. Uniformearen azpitik koraza zahar bat jazten duela diote. Hark ez die jaramonik egiten. Nirekin hizketan ziharduela, hasperen sakanak atereaz, zerura eta itsasora begiratze zuen. Gizon ona da; gure paisanoa, mantxegoa. Jainkoagan sinesten du eta erlijioduna da. Poeta samarra ere bai. Gauetan, laukoak errimatu, eta, bere gisara, isilka esaten jarduten omen da. Adorazio ia superstiziosoa opa dio bere banderari. Gauak beilan igarotzen dituela diote; Lotan behintzat ez du inork ikusi. Aitortuko al didazu bandera-eramailea gizon berezia dela?

— Kapilau jauna —esan nion— zerbait oso berezia nabaritu dut, bai, sujet horrengan; beste nonbait ikusia dudala uste dut gainera. Nola du izena?

— Ez dakit —erantzun zidan apaizak— ez zait bururatu erregistroan bere izena begiratzerik,

baina bere makutoan bi hizki daramatza irarriak:
D. K.

Akanpaturik geunden tokitik hurbil leize bat zegoen. Haitzezko ahotik behera itzala besterik ez zen ikusten. Harria jaurtiz gero boteka zihoa-
la entzuten zen, ez, ordea, lurra jotzen zuenik.

Egun ederra zen.. Eguzkiak Tropikoan ohi duenez berotzen duen giroa. Abiatzeko presta gintezen agindua hartua genuen, eta, ziurrenik, egun horretan bertan izanen genuen yankien gudataldeekin lehenbiziko topaldia. Zeru kiskalgarri hartatik zetorren su amorratuak urreztaturiko aurpegietan, odolaren eta garaitu behararren irrikia ageri zen dirdiratsu. Gertu zegoen dena abia gintezen. Klarinak marraztua zuen aldean bere urre ikurra. Abiadari heltzera gindozen, berebiziko galopadan biragune batetik ofiziale bat agertu zenean. Gure buruzagiari dei egin zion, eta misterioski hitz egin zuen harekin.

Nola esango dizuet hura zer izan zen? Sekulan ez al zaituzte azpian harrapatu itxaropen iturri gerta izan zaizuen elizaren gailurrak? Ez al duzue sekula jasan zeuron aurrean ama asesinatzen dizuetela ikusterik?... Hura izan zen honda-

mendirik handiena. «Albistea» zen. Galduak geunden, erremediorik gabe galduak. Ez genuen gehiago borrokan egingo. Geure buruak prisioneratzat eman behar genituen, menderatutzat. Cervera yankien mende zegoen. Eskuadra itsasoak irentsia zuen erabat, Ipar Amerikarren kanoiek puskatu egin baitzuten. Munduan ez zen une hartan geratzen Espainiak aurkitutakoetarik ezer.

Etsai garaileari eman behar genizkion armak, dena; eta agertu zen etsaia, deabru handi rubio baten itxuran: Estatu Batuetako ofizialea, txima zeken eta akerbizarduna; atzetik ehiztari begi urdinezko eskolta zekarrela.

Eta sartu ginen eszena ikaragarrian. Eman genizkien ezpatak; fusilak ere bai; Gudarietan batzuk maldizioka ari ziren; beste batzuk zurbiltzen, begiak malkoz bustiak zituztela, indignazioz eta lotsaz leher egin beharrean.

Eta bandera...

Banderaren garaia heldu zenean, ustegabeko ekintza zoragarri baten izu goitiarrera eramán gintuen zerbait gertatu zen. Mendeetako begiratzunez hain sakonki begiratu ohi gintuen gizon

arraro hura, bere bandera gorri-horiarekin, agur-begiraturik garratzena guri eskaini ondoren, hari ukitzera inor ausartu ez ginelarik, han joan zen, pausoz-pauso, leizera; eta, bere burua amildu zuen. Eta, armadura batena zirudien metal zarataren oihartzuna zetorren amildegi beltzetik.

Geroago, zera zebilen kapiluaren buruan:

— «D. K.»....

Bat-batean asmakizuna argitu uste izan nuen. Gizakera hura ez zitzaidan, noski, ezezaguna.

— D. K. —esan nion—, liburu zahar honetan dator erretratatua. Entzun: «Gure hidalgoaren adina berrogeita hamar bat urtekoa zen: egitura irmoduna zen, haragiz iharra, aurpegiz zorrotz, goiztiarra eta ehiztaria. Abizenez Kijada edo Kesada zeritzala esan nahi baita —honi buruz idazten dutenek alderen bat aurkitzen duten arren—; nolana ere, egiazkotzat har daitezkeen iritziak adierazten dutenez, Kijano zeritzan.»

Bandera-eramailea zen. Nola zeritzan?

Arrubio kumea

Benvenuto Celliniz ari zirelarik, artegile handi hark, behin arrubioa ikusi zuela, aitortzen duela bere *Bizitza*-n eta, norbaitek barre egin baitzuen, hala esan zien Isaak Codomano-k:

— Ez irribarrerik egin. Zin dagizuet, nik neuk, orain zuek ikusten zaituztedan bezalaxe, arrubioa bera ez bada ere, arrubiokume edo anpusa bat behintzat ikusia dudala.

Hitz gutxitan kontatuko dizuet gertatua.

Amerika guztian bezala, aztikerietan jarduteko eta azतिक ikusezinarekin harremanetan ibiltzeko ohiturak zituen herrialde batean jaio nintzen. Haren misterio-altxorra ez zen desagertu konkistatzaileak sartu ziren arren. Aitzitik, kolonia garaian, katolikuntzarekin batera, ugaritu egin ziren indar arrotzei dei egiteko ohitura deabrukerietarako joera, begi-mina... Neure lehen urteak eman nituen hirian eguneroko gauzetaz bezala hitz egiten zen, ondo gogoan daukat, deabru agerketaz, iratxoez eta ingumez. Adibidez, gure auzoan bizi zen sendi behartsu batean

zera gertatu zen: Penintsulako koronel baten arima erratua agertu zitzaiola gazte bati eta atarian lurperatua zegoen altxorraren berri eman. Gaztea hil egin zen, agerkari miresgarri hura zela medio; haren sendia, ordea, aberastua geratu zen, haren ondorengoak gaur egun diren bezalaxe. Gotzain bat beste gotzain bati agertu zitzaion, katedraleko artxiboetan galduriko agiri bat zein tokitan zegoen adieraztera. Ondo gogotan daukadan etxe batean deabruak emakume bat hartu eta leihotik eraman zuen. Zera ziurtatu zidan gure amonak: alegia, bururik gabeko fraile bat ba omen dela gauaren beldurgarri; bai eta eskutzar handi iletsu bat ere, bera bakarrik agertzen dena, armiarma infernutarra bailitzan. Hori guztia haurtzaroan entzundakotik dakit. Baina, neuk ikusi nuena, neuk ukitu nuena, hamabost une nituela izan zen; bai, neuk ikusi eta ukitu nuen errainuen munduan, eta ezkutuki ilunen munduan bizi direnetako bat.

Espainiar probintzietako zenbaiten antzeko hiri hartan, zortzietan ixten zituzten atepak auzokide guztiek, eta, beranduenez, bederatzietan kaleak bakarti eta isil geratzen ziren. Ez zen

entzuten teilatupeko habietan hontzek ateratzen zuten zarata, edo, ingurumarietako zakurren zaunka hotsa besterik. Sendagilearen edo apaizaren bila, edo, gaueko beste premiaren bategatik norbaitek etxetik irten beharra izaten zue-
nean, gaizki harriztutako kale zarpiletan zehar joan behar izaten zuen, bakoitza bere zutabeen ezarririk zeuden petroliozko kriseiluen argi mottela lagun.

Batzutan, musika edo abesti oihartzunak entzuten ziren. Espainiarrek ohi dituzten serenatak ziren; gitarra lagun, senargai edo emaztegaiari zuzenduriko samurkiak esaten zituzten aria eta erromantzeak. Ez zen beti berdina: gitarra hutsa eta senargai kantaria, eskuarte gutxi-koa zenean; koartetoa, septuorra, edo, baita orkestra osoa bere piano eta guzti ere, irrikagari zitzaion emakumearen leihopera kantuz zetorrena, halako edo beste jauntxo diruduna zenean.

Hamabost urte nituen nik eta biziaren eta munduaren gose nintzen. Gehien irrikatzen nuena kalera irten eta serenata haietako jendearekin joatea zen. Baina, nola lortu?

Haurtzaroan zaindu ninduen gure izeba zahar-
rrak, arrosarioa errezatu ondoren, etxeko bazter
guztiak miatu, ate guztiak ondo itxi eta giltzak
jasorik neure ohatzean ongi etzana uzteko ohitu-
ra zuen. Egun batean, ordea, nire lagun bat, neu
bezain gaztea, festa batetara joatekoa zen, eta
hitzik tentagarrienez adierazi zizkidan jai haren
lilurak. Gauera bitarteko ordu guztietan urduri
egon nintzen; ez, hala ere, nola ihes egin pentsa-
tu eta prestatu gabe. Hala, gure izeba zaharra-
ren bisitariak alde egin zutenean, —haien artean
apaiza eta bi lizentziatu—, politikaz hitz egitera
edo tutean nahiz tresilioan jokatzera etortzen
baitziren, eta, otoitzak errezatu ondoren, mundu
guztia lotaratu zenean, ez nuen neure proiektu-
an hastea besterik pentsatu: andre itzalgarrira
giltza ostu behar nion.

Handik hiru bat ordutara, ez zitzaidan asko
kosta hori lortzea; bai bainekien giltzak non jaso-
tzen zituen; eta gainera, aingeru baten gisan
zegoen lotan. Behar nuenaren jabe eginik, zein
aterena zen ere banekienez gero, irten nintzen
kalera; urrutian, biolin, xirula eta biolontxeloaren
akordeak entzuten hasiak ziren unean, hain

zuzen. Gizon egina nabaritu nuen neure burua. Melodia zetorren alderantz joan, eta, berehala heldu nintzen serenata tokira. Musikoek soinua jotzen zuten bitartean, festalariak zerbeza eta likoreak edaten ari ziren. Gero, sastre batek, gaualdi hartako tenorioak, abesteari ekin zion; lehenbizi. «*A la luz de la pálida luna*», eta gero, «*Recuerdas cuando la aurora*»... Niretzat gau txit berezi hartan gertatua gogoan zeinen tinko geratu zaidan adieraztearren ematen dizkizuet zehazki hauek guztiak. Dultzinea haren leihon-dotik beste batzuen era ere joatea erabaki zuten. Katedraleko plazatik igaro ginen. Eta, orduan... Hamabost urte nituela esan dut, tropikoan, gaztetxo-aroko irriki guztiak iratzar zitzaizkidala indartsu... Eta gure etxeko presondegian, ikastetxera joateko bestetarako irteten ez nintzela, eta zaintzaile haien eskuetan, eta ohitura zaharregin arabera... Misterio guztiei buruz erabat ezjakin nengoen. Hauek honela, a zer nolako poza hartu nuen, katedraleko plazatik igarotzean, espaloian eserita emakume bat, buru-oihalez ostendua, lo itxuran, ikusi nuenean! Geratu egin nintzen.

Gaztea? Zaharra? Eskalea? Eroa? Gutxi axola niri. Neure ametsetako aurkinkundearen bila nindoan, abentura irrikatuaren bila.

Serenatazaleak bazihoazen.

Plazako kriseiluen argislada ozta-ozta iristen zen. Hurbildu nintzaion. Hitz egin ere bai; ez dut esango hitz samurrak erabili nituenik; bai, ordea, sutsuak eta zirikagarriak. Erantzunik jaso ez nuelarik, makurtu eta bizkarrean ukitu nuen, erantzunik eman nahi ez eta, aurpegirik ikus ez niezaion ahaleginetan ari zen emakume hura. Tentolari eta barro jokatu nuen. Eta garaipena lortu nuela uste izan nuenean, irudi hura nireganantz itzuli zen; agertu zidan bere aurpegia eta, izugarriki bada hura izugarria! Aurpegi hura lirdingatsu eta desegina zegoen. Begietan bat matrail hezurtsu eta zornajarioan zintzilik ageri zitzaion. Ustel-kiratsaren antzeko zerbait etorri zitzaidan. Aho ikaragarritik orro-algararen antzekoa irten zitzaion. Gero, gauza hark, imintziorik makabroena eginaz, honela adieraz genezakeen zarata ateratu zuen:

— Kggggg!...

Ileak zutitu zitzaizkidan. Salto handi bat egin nuen, garrasi handi bat. Deika hasi nintzen.

Serenatakoren batzuk etorri zirenerako, «Gauza» hura desagertua zen.

Neure ohore hitza ematen dizuet, esan zuen azkenik Isaak Codomanok, kantatu dizuedana egia berdaderoa dela.

Pazko ipuina

Gau zirraragarria, benetan... *Réveillon* deritzan gaufesta, libera, dolar, rublo, peso eta frankoen zeingehiagokaren inguru, hainbeste edertasun eta ittuskeria kosmopolita biltzen den luxuzko hotel dotore horretan. Eta txanpainaren alaitasuna lagun, eta dirdaikariak eta gema-bitxiak ikuskari zirela. Musika, berriz, zentzuzkoa, urrutitik...

Ez dut gogoan nork gidatu ninduen emakume talde harengana; yanki, italiar, argentinar... emakumeak ziren hango lore. Eta harriduraz xoratua geratu nintzen, lepoan dotoregarri bakartzat galartzua, estu eta gorria zeraman, beste emakume limurgarri eta arraro haren aurrean... Gero, izen ospetsua zeraman diplomatiko batek gazte aleman poliglota bat aurkeztu zidan; fina, hiztun bikaina, emakume mundutarreri gustuko kontu atsegin eta arinak esaten, ederrez eder ibili ohi zena.

— M. Wolfhart —esan zidan ministroak—, gizon atsegina.

Luzaro jardun nintzen alemanarekin kontu-kontari. Gazteleraz hitz egin nahi izan zuen, eta, egia esan, ez dut sekula beste erdaldun alemanik ikusi hain ongi mintzatzen. Espainiari eta Hego Ameriketara eginiko bidaiez jardun zitzaidan. Bioi lagun zaizkigun zenbait jendez eta haiek ostenjardunetarako duten joeraz ere hitz egin genuen. Buenos Aires-en poeta handi batekin nire lagun zahar batekin, harremanetan egona zen, ofizina publiko batean: Patrizio adiskide jatorrarekin... Madrilen, berriz... Berehala gure arteko jarduna oso bihozkor bilakatu zen. Hoteleko dotore-giroan, berandu samar agertu zen emakumea gertatu zitzaidan arretagarrien. Haren itxurak erregeena eta, aldi berean, dotorea den zerbait zekarkidan gogora. Neure mires-harridura eta berotasuna hizketa lagunari agertu nizekionean, Wolfhart-ek zera esan zidan isilpean, halako irribarre batez:

— Begira iezaiozu zorrotz! Historiarako burua! Historiarako burua!

Ongi begiratu nion. Emakume hark *coiffures à la Cléopâtre* zeritzatenean antza zuen perfilez eta orrazkeraz, garai hartako gehiegikeriarik

erakusten ez zuen arren; airez eta izaeraz, berriz, batez ere, *lepoan dotoregarri bakartzat zeraman galartzu gorria* espagarri gertatu zitzaidanez gero, erabat Maria Antoniete erreginaren erretratuen berdina aurkitu bainien, denbora luzean, isilik, begirik kendu gabe, egon nintzaion begira. Historiarako burua ote zen benetan? Hain historiarakoa hurbiltasunez... Handik bi pausora, Konkordia plazan... Bai, buru hura, *zirkasia erara*, *Bel-Poule erara*, *ingeles burukoen erara*, *xalo-txano erara*, *queue en flambeau d'amour erara*, *chien couchant erara*, *Diane erara*, eta auskalo beste zenbat eratara orraztu bide zen buru hura...

Hall-eko bazter batean eseri zen andrea, eta Wolfhart-ekin bestekin ez zen hizketan egon, eta alemanez gainera, nire irudirako. Ardoek ezarria zidaten, ordurako irudimenean urrezko ganduz eginiko euren mugimendua; eta, misteriozko izaki zoragarri haren inguru balizketa eztiak aire-rarazi nituen. Orkestra, egoki beharrez, pabana bat ari zen jotzen. Adats hautseztatuak, euli ase-sinoak, ametsetako trianoi-jauregiak, galaikeria aberatsa eta poesiaz jantziriko nasaikeria, hain-

beste irudi adoragarri, hainbeste zoramen zoli eta pipertsu, orri gogoangarrirakoak, anekdotategirakoak, eskutitzerakoak, panfletokoiak... Bertsorik samurrenak zetozkidan gogora, gai horiez idatziak: Montesquieu-Fezensac-enak, Régnier-enak, Lucini-ren italiar poema zoragarriak... Eta, amesmen hartarako gertu bainek, mirari-ipuinak, Liburu zaharretako jakintsuek ikasiriko materializaketak, zientziaren ahalmenak, nerabilzkien gogoan... Egunean baino hurrengoan sakonagoa den igarkizun bati eskua luzatzea besterik ez diren arren. Nire buru asaldakorra berehala zen lanean. Eta, neure pentsakizunetatik irtenik, andre haren izena galdetu nion alemanari; hark, ordea, nahaspilatu egin zuen erantzuna, historiarako buruaren kontua errepikatu besterik egin gabe; ez nintzen, noski, batere pozik geratu. Ez zitzaidan egoki iruditu gehiago lehiatzea; baina, berriketan jarraituz, zorionak eman bainizkion neure lagun dir-daitsuari Alemanian edertasunaren halako ale zoragarriak dituztelako, hala esan zidan ezarian:

— Ez da alemaniarra. Austriarra da.

Eder Austriarra zen. Eta ni Kurcharsky-ren, Riotti-ren, Boizot-en erretratueta haren antzik ba ote zen bila hasi nintzen, bai eta Grevin museoko argizarizko irudietan ere...

— Oraindik goiz da —esan zidan Wolfhart-ek, bizi zen hoteleko atean utzi nuenean—. Pasa zaitetz aurrera une batez; esan ditzagun kontu batzuk gehiago, alde egin dezadan baino lehen. Bihar Parisa noa, eta nork daki noiz topo egingo ote dugun berriro elkarrekin. Sar zaitetz. *Whisky-and-soda* bana hartuko dugu, ingelesen erara, eta interesgarria den zerbait erakutsiko dizut.

Aszensorez igo ginen haren gelara. *Valet* batek britainiar edalontzi bat eramana ziga, eta alemanak paper zaharrez beteriko kartapazio bat atera zuen. Erretratu bat zeukan han, zurean irarria.

— Hona hemen —esan zidan— gure asabetariko baten erretratu; Theobald Wolfhart zen; Heidelberg-ko irakaslea. Nire aitona hau bazitekeen azti samarra, baina, dudarik gabe aski jakintsua zen. Julius Obsequens-en mirariei buruzko lana berregin zuen, Aldo Manuziok irarria; etaliburu ospetsu bat argitaratu zuen: *Pro-*

digiorum ac ostentorum chronicon; 1557an Basi-lean agertu zen infolio bat. Nire asaba horrek ez zuen bere izenpean argitaratu, Conrad Licosthenes izengoitipean baizik. Theodobald Wolfhart, nire iritziz, aztikeria zurian ziharduen filosofoa zen; bihotz osoduna. Haren garaia beldurgarria izan zen, krimenez eta hondamendiz bete. Moralista hark errebelazioa erabili zuen ankerkeriaren eta saldukeriaren aurka; eta jendeari, zera, ikustezinaren mehatxuak, espantuzko ezaugarrien bidez eta fenomeno ulergaitzez, nola agertzen diren adierazi zion. Adibideetan bat zera izango da: 1557an kometa bat agertu zela, ordu laurden bat besterik iraun ez zuen arren, gertakari ikaragarriak iragarri zituen. Gure aitonak hitzekin ohi zigun kometa hartaz, haurtzaroan ikusia baitzuen berak; ikaragarri handia eta odol-kolorekoa omen zen, bere isats-muturrean azafran kolorea hartzen zuela. Ikus ezazu honako bere estampa honetan; hor duzu Lykosthenes-en azalpena ere. Begira ezazu zernolako harrigarrikeriak ikusi zituzten haren begiek. Goi aldean, beso bat dago berealdiko ezpata mehatxukorraz armatua; azken mutu-

rrean hiru izar distirati; baina, mutur-muturrean daramana da handiena eta argitsuena. Alboetan ezpatak eta puinalak daude, denak hodei-zirkulu batean bilduak, eta, arma horien tartean, giza-buru batzuk. Geroago, Simon Goulard-ek zera idatzi zuen halako harrigarri fantasiakoei buruz, kometa azarri zela; «*Le regard d'icelle donne telle frayeur a plusieurs qu'aucuns en moururent; autres trombrent malades*». Autore batek dioenez, berriz, Petrus Greusserus-ek, Lichtenberg astrologoaren ikasleak, fenomeno ikaragarri hura bere artearen araupean ezarri zuelarik, halakoxe ondorio naturalak atera omen zituen eta halakoxe iragarpenak egin, ze, bururik zentzudunenak ere nahasturik ibili baitziren mende erdi bat eta gehiagoz. Likosthenes-ek Hungariako eta Erromako hondamendiak aipatzen baditu, Simon Goulard-ek turkoek Hungarian jasandako borrokaldi ikaragarriez, Subia-ko, Lonbardiako eta Veneziako goseteaz, Suitzako gudateaz, Austriako Vienan gertaturiko hertsiketaz, Ingalaterrako lehorteez, Holandan eta Zeelandan gertatu ziren itsas-handiaren gainezkaldiez eta Portugalen zortzi egunez iraun zuen lurrikaraz mintzo

zaigu. Likosthenes-ek gauza harrigarri asko zekien. Ekialdetik zetozen pelegrinoek zerutikako ikuskariak kontatzen zituzten. Ez al zuten 1.480an itxura gaiztoko kometa bat ikusi Arabian, Denboraren eta Heriotzaren zantzuz jantzia? Zorigaiztoko iragarkari haien ondoren, Korintiako hondamendiak eta Poloniako gudatea etorri ziren. Ladislao eta Huniada zeritzan Matias elkarkidetu egin ziren. Ikus ezazu komentatzailearen ñabardura hau: Lainoek badituzte euren flotak, haizeak bere gudarosteak dituen bezala. Likosthenesek, ordea, Alemaniako erdi aldean bizi zelarik, ez du oinartzen gertakizun hartan. Zera dio: «gure aroko 114. urtean itsasuntzien irudiak agertu omen zirela lainoetan. San Agobardo Liongo gotzaina jakitunago ageri zaigu. Honek badaki ondo asko untzi arin horiek zein alderdi fantastikotarantz doazen. Magonia herri-
ra doaz, eta, badaezpadakoarengatik gorde du nondik norakoa esan gabe. Untzi haiek *tempestarii* zeritzaten aztiek gidatuak zihoazen». Gehiagorik ere konta diezazuket, baina, goazen garrantzizkoenera. Gure asaba zera heldu zen aurkitzera: zerua eta inguratzen gaituen atmos-

fera guztia misteriozko ikuskari horiez beteak daudela, eta bere lagun alkamilarien laguntzari esker, elixir bat lortu zuen, giza begiei berebiziki agertzen zaizkien gauzak, noiznahi ikusteko ahalmena ematen duena. Aurkitua dut nik isilpekari hori —bukatu zuen Wolfhart-ek—, eta hemen daukazu —jarraitu zuen— miraria, pastila txiki hauetan. Whisky apur bat gehiago?

Ez zegoen dudarik, alemana aldarte oneko gizona zen, eta, alkohol ingelesaren zalea ez ezik, beste paradisu artifizial guztien zalea ere bazen. Hauek honela, erakutsi zidan pastila kaxan, opioz edo kirru indiarrez osaturiko nahaste bat ikusten zela zirudidan.

— Milesker —esan nion—. Ez dut sekulan dastatu, ez dastatuko ere, *droga sagaratuaren* eraginik, Ez haschis-ik ez Quincey-ren pozoirik...

— Ez bata eta ez bestea. Bizkorgarria duzu hau, zoragarria urduritasunik gabeentzat ere.

Ez baitzen isiltzen, azkeneko whisky zurrutxoarekin batera hartu egin nuen pastila, eta, agur eginik, alde egin nuen. Kanean, hotz zegoen arren, nire zainetan epeltasun atsegina zebilela ohartu nintzen. Baina, pastilarena ahazturik,

asko edanaren ondoriotzat jo nuen. Concordia plazara heldu nintzenean, Eliseo Landa-en alboan, nigandik hurbil, emakume bat zihoala ohartu nintzen. Hurreratu nintzaion pixka bat, eta harritu egin nintzen hura, ordu hartan, oinez eta handiki jantzia ikustean; batez ere, argi islada une batean haren edertasun paregabea ikusirik, *réveillon*-ean artegagarri gertatu zitzaidan andrea bera zela ohartu nintzenean; dotoregailu bakartzat lepo zuri-zurian galartzu mehe eta gorria, zauri bat bezain gorria, zeraman hura baitzen. Urrutiko erloju bat entzun nuen orduak jotzen. Auto baten bozinakada ere entzun nuen. Mozkorraldi, arraro batek harrapatua nabaritzen nuen neure burua. Eta, supernaturazko gertakaria zitekeenaren burutapena erabat baztertuz, obeliskotik aurrera Tulleri alderantz zihoan ande-rearengana jo nuen.

— Madame —esan nion—, madame...

Zirimiri mottel bat ari zuen ezko eta hotz, eta plazako argien dirdirak nahasia eta iratxo-girokoa zirudien. Plazako une batetaraino heltzean, andrea begira jarri zitzaidan; bat-batean, zinemategiko antzoki bat edo agertu zitzaidan. Jende

askoren errainuen antzekoak zeuden, ametsetakoa zirudien giroan; eta nik ez nekien esaten nola nabaritu nuen neure burua, benetakoa eta, aldi berean, pentsamendu hutsekoa zatekeen izamolde hartan... Jaso nituen begiak eta, zeru-sabai ilunean Likosthenes-en liburuko estapan zeuden irudi berberak ikusi nituen: beso handitzarra, ezpata handitzarra, buruz inguratuak. Andereak —begiratu egin baitzidan— itxura triste gaitzigarlea zeukan, eta, sorginkeriaz zirudie-la, soinekoak aldatuak zeuzkan; *fichu* antzeko batez zegoen jantzia, ertz-mutur luzeak aurretik eroriak zituela. Haren buruan ez zen ikusten orain à *la Cléopâtre* orrazkerarik, baizik eta burusare arrunta; honen ertzen azpitik, berriz, adats zurituak ageri zitzaizkion. Gero, hurbilagotzera nindoakiola, albo batean, gurdixka zirudien zerbait zegoela ohartu nintzen; bai eta trikornioz, ezpataz eta, beste batzuk, zikaiez hornituriko giza irudi arreak ere. Bestaldean, gizon bat zaldiz, eta gero taulagain bat edo... O, Jainkoa, jakina: hara hemen *lehen ikusia errepikatzen*... Ba ote da niregan oharmenik une honetan ere? Bai, baina, une hartan ikuskai zitzaidan ikustezinak

inguratua naukala nabaritzen dut. Bai, gilotina da. Eta benetako balitz bezalaxe ikusten dut lozorroan —zinemategiaz mintzatu al natzai-zue?— tragedia garatzen... xehetasunak, ez dakit zergatik, gogora ezin ekarri baditut ere, anderea berriro begira jarri zitzaidala ikusi, nuen; eta, beso, ezpata, hodei eta buruen ikuskari zerutiar eta igerkorraren azafran koloreko dirdirapean, zera, lehentxeago hoteleko aretoan benetako bere lilura bikainez, bere itxura harroz, odol-koloreko galartzu medarrez hornituriko bere lepo zuri-zuriaz, miresgarri gertatu zitzaidan hura aizkora mekanikoaren pean erortzen ikusi nuen.

Misteriozko ikuskizun hark zenbat denboraz iraun ote zuen? Ez nuke esaten asmatuko; zientzia itsumustuan dabilen eremu ezezagunean gertatu baitzen; ametsak tokirik ez duen garaian; esperimentuzko oharketek adierazi dutenez, segundo bakar batean mila urte igaro daitezkeen denboran. Desagertu zen hori guztia; eta, zein tokitan nengoen ohartu nintzenean, Tulleri aldera jo nuen zuzen. Aurrera joan eta, lorategi barruan nengoela ohartu nintzen; eta

berehala zera etorri zitzaidan burura: nolaz ote zeuden atean artean zabalik. Beti ere gau-ordu haietako gandu mottelaren babesean, aurrera jarraitu nuen. Rivoli-kale aldeko lehen atetik irtengo nauk —esan nion neure buruari—; agian zabalik egongo duk hura ere... Zer dela eta ez duk, ba, egongo zabalik?... Baina, Lorategi hura Tulleri-koa al zen, ala ez? Zuhaitzak, adaje iluneko zuhaitzak, negutearen bihotzean... Pauso bat ematerakoan harria zirudien zerbaitekin tupust egin nuen, eta, erdi kordegabetua nengoen arren, beldurgarrizko harriduraz, kexua zirudien, eta, totalka eta itokarrean esaniko hitzaren antzeko aiuma bat entzun nuen; neure oina zauritu zidan gauza hartatik zetorren; eta ez zen harria, burua baizik. Eta zerurantz begiratu nuelarik, ilargia ikusi nuen, lehen ezpata ikaragarria zegoen lekuan; eta han zeuden Likosthenes-en estanpako buruak. Lorategi hark, berriz, basoa bezain zabala baitzen, miraritegi hartan zegoen lilura itzalgarriz bete ninduen. Eta, keaztaturiko urre-oihalean zehar bere dirdai tristeak bidaltzen, ilargiko burua zegoen han goian. Gero, ziurtasun poetikoan, liburu santuetako ziurtasu-

na bezalakoa nabaritu nuen neure baitan; eta, egokitasunik gabea zirudien motiboren batengatik neure buru-kutxan honako hitz hauen oihartzuna entzun nuen: «Azken ordua! Tripoli! Pekingo garaipena!»; egun hartako egunkarietan irakurriak, hain zuzen. Jainkozko gauzetarako neure irrikiari zegokionez, esan ezin ahalako itolarria esperimendatzen nuela, zera pentsatu nuen: «O, Jainkoa! O, Jauna! Gure Aita!»... Begiratu aldatu nuen, eta, urrezko argitasun samurrean, lira moduko bat ikusi nuen; eta liraren gainean buru bat, Luxenburgoko Gustave Moreauren Orfeorenaren berdin-berdina. Aurpegian atsekabea ageri zuen; inguruan, berriz, bazegoen zerbait, izakien mugimendua zirudiena: arimak mugimenduz nabarmentzen zaizkielako, animatu deritzaien izakienak eta, barne mugimendu ezkutua dutelarik, inanimatu deritzaiena. Zera entzun nuen, gogoan dudanez, buru hark zioela: «Etorriko da, etorriko damu eguna, eta lira, bakez sagaratu gertatuko da orduan!» Eta Orfeoren burutik hurbil, arrosa mirarigile bat eta itsasbelar bat ikusi nituen; eta urrezko dordoka bat haietara zetorrela.

Garrasi handi bat entzun nuen, ordea, bestal-detik. Garrasia, berriz, ahots askotariko koru batenaren antzekoa zen. Eta, esan dizuedan argiari esker, zuhaitz bat zela garrasika ari zena ikusi nuen; fruituen ordez, buruz beterik zeuden zuhaitzetariko bat; eta musulmanen liburu sakratuak aitatzen duen zuhaitza zela pentsatu nuen. Al handi eta guzieldunaren ospez esaniko hitzak entzun nituen. Eta zuhaizpean odola zegoen.

Aurrera jarraitu beharrean, atzera, lorategiko atakara joan nahi nuen ahalegin guztian; baina, zera ohartu nintzen entzuten zela alde guztietatik: ilunpean nabarmentzen ziren edo zuhaitzen enbor artetik agertzen ziren ezin konta ahala argiz inguratutako buruaren zurrumurru, ahots, eta hitzak. Zenbait lozorroalditako une samine-tan izan ohi denez, gertatzen zitzaidan guztia ametsa besterik ez zela pentsatu nuen, neure beldur-ikara apur bat menderatzeko. Bien bitartean, buru beldurti eta higuigarri bat *berreza-gutu* ahal ukan nuen, heroi batek bete esku zuriz helduta, narrasti-gandor higikor eta inpernutia-rretik helduta, zeukala: hainbeste aldiz madari-

katuriko medusa-burua zen. Urre-haragizko emakume besoa zitekeen beso batetik zintzilik beste buru bat zegoen, bizar beltz kizkurduna; Holofernes gudariaren burua zen. Eta Joan bataiatzailearen burua; eta, gero, bizikera bereziz bizirik zirudiela, Apostoluaren burua; behin Erroman lurretik iturria jaioarazi zuen Apostolu haren burua; eta, beste buru bat: Rodrigo Daz de Vivar-ek, mendeku afarikoan, bere aitaren mahai gainera jaurti zuen hura.

Eta beste batzuk: Ingalaterrako Karlos Erregerena eta Maria Estuart Erreginaarena... Eta buruak ugaritzen zihoazen, multzoka, talde makabroak osatuz; eta, espazioan zehar hilobietako odol-ihintza zebilen; eta, Bayaceto-ko bi mila aztorezainen buru tximatsuak ziren; Asiako errege eta handizkien jauregietan lepoa moztu zieten haren-neskatxen buruak ere bai; eta euren fedearengatik, gorrotoagatik, giza-legeengatik lepoa moztu zieten haienak; Basati taldeen eskuetan, espetxeetan, errege-dorreetan, Gengiskan-en, Abdulhamideen eta Behanzin-en eskuetan dekapitatuak izan zirenenak...

Hala esan nuen neurekiko: O, irabazle txar hori! Beti izango ote haugu lur honetan? Eta, hi ere, Paris, munduaren buru haizen hori, aizkoraz moztu eta heure gorputz handitzar horretatik kendu egingo ote haute?

Nire barne-hitzak entzun izan balira bezala, Luis XVI.aren burua, Lamballe-ko printzemearen burua, Jauntxoan eta iraultzaileen buruak, santuen eta asesinoen buruak ikusi nituen, eta, talde batetik gotzain irudi bat aurreratu zen, bere burua eta Galietako Dionisio martiriaren burua eskuetan zekartzala; eta hala hots egin zuen: ,

— Bene-benetan diotsuet, berpiztuko da Kristo!

Eta, Apostolu dekapitatuaren alboan, hotel-halleko anderea austriarra ikusi nuen. Lepa-huts zegoen arren, galartzu zuria zirudien purpurazko zauria ikusten zitzaion; eta hala esan zuen Maria Antonietak:

— Berpiztuko da Kristo!

Eta Orfeoren buruak, medusaren buruak, Holoferneren buruak, Joanen buruak eta Pauloren buruak, buruz beteriko zuhaitzak, buruz

beteriko basoak, berealdiko buru aldra hark guztiak, garrasirik sakonenaz hots egin zuen:

— Berpiztuko da Kristo! Berpiztuko da Kristo!...

— Behin ere ez da ona jan eta berehala lotaratzea —esanaz amaitu zuen adiskide doktore jatorrak—.

Huitzilopochtli

Ipuin Mexikarra

Duela gutxi, Estatu Batuetako muga-hiri batetik, Karrantzako destakamentuetan bat zegoen, Mexikoko toki batera joan beharra izan nuen kazeta lan batek eramana. Han errekomendazio bat eta salba kondukto bat eman zizkidaten, Pantxo Villa zeritzan gerrillari eta militar-buru bikainaren mendeko lurraldeetan barrena sar nendin. Iraul-gudarien teniente eta adiskide zitzaidan batekin nuen nik egon beharra, nire berrientzako datuak eskaini baitzizkidan hark, haren alderdian nenbilen bitartean ez nuela ezeren beldur izan beharrik ziurtatuz.

Automobilez egin genuen bidaia, mugatik apur bat urrutiratu ginen arte. Mister John Perhaps, medikua eta gainera yankien egunkarientzat kazeta lanetan zebilena, eta Regera koronela, edo hobeto esan, Aita Regera, bizi guztian ezagutu dudan gizonik arraroen eta beldurgarriena, nituen bidelagun. Aita Regera fraile izana zen; Maximilianoren garaian gaztea zen eta

inperialista ere bai noski; Porfirio Diazen garaian Enperadorez aldatu zen, beste guztiak lehen bezala jarraitzen zuelarik. Dena Jainkoaren asmoetan erabakia dagoela uste zuen fraile zahar euskalduna da. Batez ere, agintea Jainko-agandiko eskubidea delakoa eztabaidagaitza da harentzat.

— Jainkoak hala nahita izan zen Porfirio menderatzaile —zioen—. Hala izan behar zuelako.

— Ez ezazu makanarik esan —erantzuten zion mister Perhaps-ek, Argentinan izana baitzen—.

— Baina, Jainkoarekiko harremana falta izan zitzaion Porfiriori... Misterioa errespetatzen ez duena deabruak eramaten du! Porfirio, berriz, sotanarik gabe erabili gintuen kaleetan zehar. Maderok, ordea...

Hemen Mexikon batez ere, misterioz betetako lurrian bizi da jendea. Flor dabilzan indiar horiek guztiek ez dute besterik arnas hartzen. Eta Mexiko nazioaren etorkizuna, sorrerako jendeek zituzten jainkokien baitan dago oraindik ere. Beste tokietan zera esaten da: Hatz egin... eta... agertuko da. Hemen ez dago ezer hatz

egin beharrik. Aztek-en edo Mai-en misterioak bizirik dirau mexikar guztiengan, odolean giza-nahasketarik ugariena dutenengan ere; eta, honelakoak ez dira astro.

— Koronela, har ezazu whisky bat! —esan zion mister Perhaps-ek bere ruolz-botila luzatuz—.

— Nahiago dut komitekoa —erantzun zion Aita Regerak—. Zakutik gatza atera eta paper batean eskaini zidan; baita likore mexikarrez beteriko kantinplora bat ere.

Ibili eta ibili, basoaren beste muturreraino heldu ginen; eta, han hots bat entzun genuen: «Geldi». Gelditu ginen. Ez zegoen handik pasatzerik. Oinutsik, kapel handiak buruan eta erri-fleak gertu zituzten indiar multzo batek bahitu egin gintuen.

Regera zaharrak buruzagiarekin hitz egin zuen, eta hark ezagutzen zuen yankia ere. Dena ondo bukatu zen. Bi mandeme eta zaldixka bat lortu genituen, joan behar genuen tokiraino iristeko. Ilargitan jarraitu genuen aurrera. Pausoka-pausoka joan ginen. Bat-batean, hala bota nion Regera zaharrari:

— Regera, nola nahi duzu dei zaitzadan, Koronel ala Aita?

— Mundura ekarri ninduenak bezala! —esan zidan purrustaka pertsonaia lehorrak.

— Zeragatik esaten nizun —ihardetsi nion—, arduratu samarra naukaten zenbait gauzaz galderak egin behar baitizkizut.

Bi mandemeeek trotetxo egokia zeramaten; eta, mister Perhaps zen noizbehinka bere zaldia-ri zintxa zuzentzeko gelditzen zen bakarra. Egia esan, bere whiskeyari xurrut egiteko gelditzen zen batez ere.

Yankiari aurrera joaten utzi nion; eta, gero, neure aberea Aita Regerarenarengana hurbildu eta esan nion:

— Zu gizon ausarta, praktikoa eta antzinera-koa zaitugu. Indiar talde hauek guztiek errespetatu egiten zaituzte, eta maite ere asko maite zaituzte. Esaidazu konfiantzan: Egia al da oraindik ere konkistaroan bezala, gauza harrigarriak ikusi ohi direla hemen?

— Deabru onak eraman zaitzala! Ba al duzu tabakorik?

Zigarro bat eman nion.

— Esango dizut, ba. Aspalditik, neure burua bezalaxe ezagutzen ditut indiar hauek; eta euren artean heuretariko bat banintz bezala bizi naiz. Oso muttiko nintzela etorri nintzen hona; Maximilianoren garaian. Ordurako apaiza nintzen, apaiz jarraitzen dut eta apaiz hilko naiz.

— Eta...?

— Ez zaitez horretan sar.

— Arrazoi duzu, Aita; baina, utziko didazu behintzat zure bizikera arraroaz interesatzen. Nola daiteke zu, horrenbeste urtez apaiz, militar, istorio bat dagokion gizona izan, hainbeste denboraz indiarren artean sartua egon eta, azkenik, Iraultzan Maderorekin agertzea? Ez al zuten esan, ba, Porfiriok irabazi egin zintuela?

Regera zaharrak algara handi bat bota zuen.

— Pofiriok Jainkoa berekin zuen arte, ondo ibili zen dena; eta hori Karmen andreari eskerak...

—Nola, Aita?

— Ba, horrelaxe... Beste jainkoak ere, ordea...

— Zein jainko, Aita?

— Lurrekoak...

— Baina, zuk sinesten al duzu haiengan?

Zaude isilik mutikoa, eta har ezazu beste komiteko bat.

— Konbida dezagun mister Perhaps ere —esan nion—, oso aurrera joan zaigu eta.

— Perhaps! Perhaps! Yankiak ez zigun erantzun.

— Itxoidazu —esan nion—, Aita Regera; ea harrapatzen dudan.

— Ez zaitezela joan —erantzun zidan, basabeltzaren bihotzera begiratzuz—. Har ezazu zeure komitekoa.

Azteka alkoholak jardun berezia ezarri zion nire odolari. Apur batez isilik ibili ondoren, zera esan zidan Aitak:

— Porfiriok bere burua engainupean erortzen utzi izan ez balu...

— Politikoenean?

— Ez, seme, deabruenean.

— Nola da hori?

— Badakizu.

— Espiritismoarena?

— Ez da horrelakorik, ez. Zera da, hark jainko zaharrekin harremanetan jartzea lortu zuela...

— Baina, Aita...!

— Bai, mutikoa, bai; eta begira zergatik esaten dizudan: meza ematen dudan arren, horrek ez baitu kentzen lurralde horietan hainbeste urtez ikasi ahal dudana... Eta gauza bat jakin behar duzu: gurutzearekin ezer gutxi lortu dugu hemen; eta, kanpotik nahiz barnetik, jatorrizko idoloen arima eta errainuek menderatzen gaituzte... Hemen ez ziren kristau kateak nahiko gertatu lehengo jainkokiak esklabizatzeko; eta, ahal ukan duten bakoitzean, eta orain batez ere, deabru horiek azaldu egiten dira.

Nire mandemeak atzeraka salto egin zuen, dena asaldatua eta dardaraz; aurrera eragin nahi izan nion; baina, alperrik.

— Egon geldi, geldi! —esan zidan Regerak—. Eta bere aizto luzea atera, eta zuhaitzetik haga bat ebaki zuelarik, kolpe batzuk eman zituen lurrean.

— Ez zaitez izutu —esan zidan—, koskabil-sugea da.

Eta orduan larra-suge handi bat ikusi nuen, bidean hila geratzen zela. Eta bideari heldu

genionean, apaizaren barremurria entzun nuen...

— Ez dugu gehiago yankia ikusi —esan nion—.

— Ez arduratu; aurkituko dugu noizbait.

Aurrera jarraitu eta zuhaizti handi batean zehar igaro behar izan genuen; eta, haren bestaldeko ursalto batetik zetorren urotsa entzun nuen. Berehala: «Geldi!»

— Berriro? —esan nion Regerari—.

— Bai —erantzun zidan—. Indar iraultzaileek euren mende daukaten tokirik delikatuenean gaude. Pazientzia!

Ofiziale bat hurreratu zen gudari batzuekin. Regerak hitz egin zien; eta, hau entzun nuen ofizialeak erantzuten ziola:

— Ezin da inola ere aurrerago joan. Hor geratu beharko duzue egunsentira arte.

Atsedean hartzeko babesgune bat aukeratu genuen, ahuehute handi baten azpian.

Ez dut esan beharrik ezin nuela lorik hartu. Tabakoa amaitua nuen eta Regerari eskatu nion.

— Badaukat —esan zidan—, baina marihuanaz nahasia.

Onartu nuen, baina beldurrez, ez baitakit belar sorgingarri horrek zelako ondorioak dituen, eta erretzen hasi nintzen. Berehala zen apaiza zurrunkaz. Nik, berriz, ezin lorik egin.

Dena isiltasuna zen basoan, baina isiltasun beldurtia, ilargiaren argi mottelaren pean. Hala-ko batean, kexu luze zaunkaria bezalakoa entzun nuen urrutian, gero zaunka-koru bilakatu zena. Banuen nik basabeltzetako musika gaizto horren berri: koioleen zaunkada zen.

Jaiki egin nintzen, istiluak hurbiltzen ari zirela nabaritu nuenean. Ez nengoen batere ondo, eta apaizaren marihuanaz oroitu nintzen. Hori ote zen...

Zaunkadak ugaritzen zihoazen. Regea esnara-zi gabe, hartu nuen neure errebolberra eta, arriskua zegoen aldera abiatu nintzen.

Ibiltzen-ibiltzen, txaradiaren barnera sartu nintzen, ilargiarena ez zen argitasun moduko bat ikusi nuen arte; izan ere, basotik kanpora ikusten zen ilargi argia zuria baitzen; barruko hau, berriz, urre kolorekoa. Barrurago joan nintzen, giza-ahotsezko zurrumurruxka bat, tarteka koio-

teen zaunka-hotsak ere bai, entzuten ziren toki-raino.

Ahal nuen guztia aurreratu nintzen. Hara zer ikusi nuen: harrizko idolo handitzar bat, aldi berean idolo eta aldare zena, doi-doi adierazi dudan argitasun horretan jaso. Ezin ezer zehaztu. Bi suge-buru, enborrharen beso edo adar zitezkeenak, elkartzen ziren goi aldean, haragi gabeko kaskezur ikaragarri baten gainean; zeinak sorta bat esku-moztu baitzituen inguru, harribitxizko kollar baten gainean; eta, horren azpialdean, bizi-bizirik, monSTRU-mugimendu bat ikusi nuen. Baina, batez ere, indiar batzuk begiztatu nituen, gure bidaiakinak ekartzen lagundu ziguten haietarikoak, hain zuzen; eta, isilik, jauresle, aldare bizidunaren inguru biraka zebiltzan.

Biziduna, bai; izan ere, ongi begiratu niolarik, eta neure irakurketa bereziak gogoan nituela, garbi jakin nuen hura Teoyaomiki-ren aldarea zela, herio-jainko mexikarrarena. Harri hartan suge biziak astintzen ziren; eta, ikuskari hark izugarrizko egunekotasuna hartzen zuen.

Aurreratu egin nintzen. Zaunkarik gabe, isiltasun etsikorrean, koiole multzo bat heldu zen,

eta misteriozko aldarea inguratu. Sugeak, pilan, astindu egiten zirela ohartu nintzen; eta enbor ofidikoaren oinetan gorputz bat mugitzen zen, gizon baten gorputza. Mister Perhaps hantxe zegoen.

Zuhaitz enbor baten atzean nengoen ni, neure ikara isilean. Aluzinazio batean nengoela uste izan nuen; baina, han zegoen benetan, Amerikako koiotez, Europako otsoak baino gaiztoagoak diren koiote zaunkariez osaturiko zirku-lu handia.

Biharamunean, kanpamentura heldu ginelarik, sendagileari dei egin behar izan zitzaion niregatik.

Aita Regeraz galde egin nuen.

— Regera koronela lanpetua dago une honetan —esan zidan nigandik hurbil zegoenak—. Hiru falta zaizkio fusilatzeko.